

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXIII. edizioa

2 0 1 1



B

Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

EUSKARA SAILA
ÁREA DE EUSKARA

zeurea da hitza
euskara
no te lo pierdas

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXIII. edizioa

2 0 1 1

*Mi
Rafael Koleta*

Fotokonposaketa eta Fotomekanika:

IKUR, S.A.

Inprimatzailea:

BASTER, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-931-2011

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso ditu.



Urtero aurkeztu izan dira hainbat eta hainbat ipuin Mikoleta Ipuin Lehiaketara baina aurtengo edizioak orain arteko muga apurtu eta 900 ipuin jasotzera hurbildu gaitu; izan ere, ipuin lehiaketa honen historia luzean inoizko parte hartzerik handiena izan da aurtengoa. Hala ere, ipuinak beti legez, irudimenez eta ilusioz egindakoak direla nabari da irakurtzerakoan darien freskotasunak agertu bezala.

Beste alde batetik, epaimahai taldean azken 18 urteetan kide izan dugun Xabier Gereño (Bilbao, 1924 - 2011) egunotan hil da. Gustura betetzen zuen Xabierrek zuek idatzitako ipuinak irakurtzeko eta aukeratzeko beharra eta urtero zen gurekin sari-banaketa ekitaldian, aurreko edizioetako argazkietan ikus dezakezuen bezala. Xabier, beti izango zaitugu gogoan.

Iñaki Azkuna
Bilboko Alkatea

Sariak

*Bilboko Udaletxean, bi mila eta hamaikako martxoaren bateko arratsaldeko bostetan batuta,
hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXIII. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak,
aurkeztutako 896 ipuinak aztertu ondoren:*

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. SAN MAMES,
Eneko Bercedo Pérez,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
2. PRAKAK EROSTERA,
Ainara Urquijo Gardeazabal,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
3. NEURE BURUARI KONTATZEN DIODAN IPUINA,
Maria Ugarte Nieto,
Zamakola-Juan Delmas LHI.

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. EGUN MADARIKATUA,
Iñigo Casado Martínez,
La Salle Bilbao HLBHIP.
2. BI UR TANTEN BIZITZA,
Irati Casado Burguete,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
3. BETI MIN BERDINA,
Gorka Mediavilla Briones,
Uribarri LHI.

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. NORVEGIAKO ETXEA,
Nerea Mazo Antón,
Gabriel Aresti BHI.
2. BILBOKO MISTERIOA,
Ainhoa Narvaez Pacho,
Zurbaran BHI.
3. 5 CENT,
Jone Gardeazabal Aramendia,
Miguel de Unamuno BHI.

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. MUGARIK GABEKO IRUDIMENA,
Maitane Sobrino Alonso,
Artxandape Ikastola HLBHIP.
2. AINGERUTXOA ETA DEABRUA,
Elai Andraka González,
Ignacio Ellacuria BHI.
3. LASTER ARTE,
Maidar Bilbao Alzibar,
Gabriel Aresti BHI.

ARGITARAGARRIAK:

A KATEGORIA:

- MIKELEN ETA MAIALENEN EZKONTZA, Leire Inclán Mora, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- SUPER-POZTASUN ETA HERRI TRISTEA, Mikel Arrue Karazo, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- BETIDANIK, Irati Pérez Muñoz, Kirikiño Ikastola HLBHIP.

B KATEGORIA:

- MARIREN EGUNEROKOA, Ainhoa Arce Muñoz, Deustuko Ikastola IPI.
- SAGI BANPIROA, Ainhoa Franco Santana, Felix Serrano LHI.
- BOST MILA PIEZAKO PUZZLEA, Libe López Arandia, Felix Serrano LHI
- DEUSTUKO HILKETA, Christian Blanco Lourenco, Deustuko Ikastola IPI.

C KATEGORIA:

- EIDERREN OINETAKOAK, Itziar Iriondo Mazas, Miguel de Unamuno BHI.
- MIKEL IZENEKO EZKUTUKO AGENTEA, Unai Bilbao Aja, Miguel de Unamuno BHI
- DEI EZEZAGUNA, Oihane Duran Arbaiza, Gabriel Aresti BHI.

D KATEGORIA:

- TXIMELETA BELARRIAK, Karmele Ugalde Arcenillas, Berrio-Otxoa HLBHIP.
- NOR ZARA ZU?, Sara Nicholson Mendieta, Artxandape Ikastola HLBHIP.

Eta batzarra bukatutzat ematen da, Bilbon, bi mila eta hamaikako martxoaren bateko arratsaldeko seietan.

Ana de Castro Rubalkaba, epaimahaiburua

<i>Lutxo Egia, epaimahaikidea</i>	<i>Igone Etxebarria, epaimahaikidea</i>
<i>Jose Maria Larrea, epaimahaikidea</i>	<i>Jesus Etxezarraga, epaimahaikidea</i>
<i>Juan Ramón Madariaga, epaimahaikidea</i>	<i>Txani Rodriguez, epaimahaikidea</i>
<i>Luis Gutierrez, epaimahaikidea</i>	<i>Pedro Alberdi, epaimahaikidea</i>

Nagore Layuno, idazkaria


A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



SAN MAMES

*Eneko Bercedo Pérez,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Kaixo, lagunok!! Ni San Mames futbol zelaia naiz! Bai, Athleticen futbol zelaia. Oso pozik jartzen naiz Athleticen irabazten duenean eta triste galtzen duenean. Jende asko etortzen da partiduak ikustera. Berria egingo didate eta orduan jende gehiago etorriko da. Baina San Mames berriak ez du izango arkurik, horregatik triste nago. Beste herrialde batzuetan “KATEDRALA” izenarekin ezagutzen naute.



Athleticek Lezaman entrenatzen du. Bai, zera, Lezama hori nire anaia da!! 1970ean egin zen, ni ordea 1913an.


Atsedendietan usain gozo-gozoa daukat. Ogitartekoen usaina! Batzuk pata-ta tortillarekin, beste batzuk urdaiazpikoarekin...

Partidu osoan jendea ez da isiltzen, denak dabiltza:

—Athleeeeeeeetic eup! Athleeeeeeeetic eup!

—A la bi, A la ban, A la bin, bon, ban...

Eserleku guztiak beteta daude. Den-dena zuriz eta gorriz beteta, banderak, tapakiak, kamisetak... Oso polita da zuriz eta gorriz beteta ikustea.



Museo bat ere badut 24-26. ateetan. Garaikurrak, argazkiak, kamisetak eta holango gauzak daude museoan. 1984a, bai urte polita! Azkenengoz Liga eta Errege Kopa irabazi zuenean. Errege Koparen finala, Athletic-Bartzelona, 1-0 Endikak sartutako gola.

Athletic ez da inoiz 2. mailara jaitsi. Beti 1. mailan egon da. Beno ea-ea, 2006-2007 denboraldian 17. postuan gelditu zen. Athleticek 8 liga, 24 Errege Kopa eta Superkopa bat irabazi ditu.

Beno, agur lagunok. Nik oso ondo pasatu dut eta hurrengora arte!!!

PRAKAK EROSTERA

Ainara Urquijo Gardeazabal,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

Kaixo, ni Iñigo Gardeazabal naiz eta 3 urte ditut. Gaur prakak batzuk erosiko ditut. Prakak hauek dauzkat pentsatuta erostea. Beno, amak erosi dizkit. Nire ama Virginia deitzen da.



Gaur prakak estreinatu ditut. Eta begira zelan geratzen zaizkidan, ondo ezta? Begira ni hau naiz. Gustatzen zaizkizue? Uste dut baietz ezta? Beno, ez du inporta.

Bihar nire amaren eta nire urtebetetzea da. Orain gaua da eta lotara noa. Bihar kontatuko dizuet zer oparitu didaten. Hurrengo egunean...

Zorionak, Iñigo! Gaur 4 urte egingen ditut eta aitak jolasteko parkinga erosi dit. Prakak haserretu egin dira eta handitu dira. Aaaaa!

Metxeroa hartuko dut. Ezin dut!! Artaziak!

—Ez dizkidazu eman, ezin dut!!—Mesedez geratu, gaur nire urtebetetzea da. Geratu. Ama, amaitu dut bera-gaz. Ez, ez da hil, badirudi ona egin dela.



—Bai ona egin naiz orain praka normala izango naiz. Baina hegaz egingo dut.

—Orduan ez zara izango praka normala.

—Bai, baina egingo dut. Zuk imajinatzen dituzun gauzak egingo ditut.

—Nahi dudana lortuko dut?

—Bai, nola ez! Benga eskatu gauza bat.

—Bale. Hegan egin nahi dut.

—Bale, lortuko duzu dena.

—Seguru zaude?

—Bai seguru nago. Benga goazen hegan egitera!!

—Iñigo, nora joan nahi duzu hegan egitera?

—Etxera joan nahi dut, baina nire buruak ezin du hegan egin.



—Ipini txapel hau.

—Bale, ipiniko dut. Ya esta! Ya ipini dut txapela. Orain etxera joan nahi dut.

—Ama, aita, Alvaro, etorri naiz etxera.

—Iñigo, non egon zara?

—Ama, oso istorio luzea da.




NIRE BURUARI KONTATZEN DIODAN IPUINA

*Maria Ugarte Nieto,
Zamakola-Juan Delmas LHI.*

Baziren behin hiru ahizpa: lehenengoa Txanogorritxu, bigarrena Edurne Zuri eta hirugarrena Mari Errauskin. Hiru etxe egin zituzten. Txanogorritxuk lastozko etxetxo egin zuen, Edurne Zurik egurrezko etxetxo eta Mari Errauskinek adreiluzkoa.

Inguruko gaztelu batean bi printze bizi ziren.



Egun batean hiru ahizpak jolasten ari zirenean zuhaitz batetik sorgina atera zen eta eraman egin zituen gaztelu sorgindu batera. Gero sorginak bi printzeak engainatu zituen eta etxera eraman zituen. Gero bi printzeei esan zien garbitzeko dena eta etxeko lanak egiteko.


Gauean bi printzeek ihes egin zuten eta hiru ahizpak bilatzen hasi ziren. Gaua pasatu zen eta ez zituzten aurkitzen. Gero batek pentsatu zuen gaztelu sorgindura joatea bilatzera.

Gaztelu sorginduan Txanogorritxuk printze polit bat ezagutu zuen eta maitemindu egin zen. Eguna iritsi zen eta bi printzeek hiru ahizpak aurkitu zituzten eta ihes egin zuten.

Sorgina esnatu zenean, ez zeudela ikusi zuen eta infartu batek eman zion. Gero hiru ahizpek eta bi printzeek sorgina hartu zuten eta bi printzeen gaztelura eraman zuten. Esnatu zenean ondo portatuko zela esan zien eta horrela gertatu zen. Geroago galdetu zioten sorginari zergatik egin zuen hori eta berak esan zuen bere semeak galdu zirela eta haiek bilatzen ari zela.

Azkenean sorgina konturatu zen bi printzeak zirela bere bi semeak eta denak bi printzeen gazteluan geratu ziren bizitzen.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila herriko plazan.



Mikelen eta Maialenen ezkontza

Leire Inclán Mora
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

Bazen behin Maialen izena zuen andre bat. Maialenek mutil bat zuen gustuko eta mutil haren izena Mikel zen. Oso maiteminduta zeuden eta ezkontzea erabaki zuten.

—Maialen, ondo deritzozu aste honetako edozein egunetan ezkontzea? —esan zuen Mikelek.

—Asko gustatzen zait ideia, baina denboraz oso justu egongo gara —esan zuen Maialenek.

—Badakit, baina ziur nago egingo dugula.

—Bai. Orain hasiko gara deitzen gonbidatuta daudela jakinarazteko.

—Nortzuk?

—Zure ama eta aita, izeko eta amama, nire aita eta ama, amama eta aitite, nire anaia eta arreba, zu, zure ahizpa eta lagun batzuk, nire beste batzuk, haien seme-alabak eta kito. Ezta?

—Ondo dago. Hasi gaitezen deitzen.

Guztiak zorionak eta baietza emanda joan ziren jatetxea aukeratzera. Lore sorta erostera ere joan ziren.

Hurrengo egunean nire ama, amama, Gotzone (nire lagunik onena) eta nire ahizparekin joan nintzen zapatak eta soinekoa erostera.



Mikel bere gurasoekaz zapatak erostera joan zen. Gero lagunekaz trajea eta eraztuna erostera joan ziren.



Guztia bukatu ostean, lotarako ordua zen. Mikel eta Maialen oso urduri zeuden hurrengo egunean euren ezkontza zelako. Esnatu zirenean trajea eta zapatak jarri eta elizara joan ziren. Elizara joateko ez ziren joan kotxe arrunt baten, limusina baten baizik! Ez zen ezkontza bakarra:



Mikel eta Maialen

Paul eta Paula

Jon eta Joane

Oihan eta Oihane

Elizatik urten eta jatetxera joan ziren. Bikain jan zuten eta tarta oso polita izan zen. (azkenean bi izan ziren)



Eztei ondoez (luna de miel) Londresera joan ziren handik, Punta Kanara, Punta Kanatik San Franciscora, San Franciscotik New Yorkera (N.Y.), New Yorke-tik Los Angelesera (L.A.), Los Angelesetik Washingtonera, Washingtonetik Flori-dara eta han geratu ziren bizitzen.




Londres




Punta Kana



San Francisco



New York (N.Y.)



Los Angeles (L.A.)



Washington



Florida

Handik urte batera seme-alabak (bikiak) eduki zituzten: Libe eta Lier. Eta hiru urte geroago Leizuri jaio zen.



Amaiera

SUPER-POZTASUN ETA HERRI TRISTEA

Mikel Arrue Karazo
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

Behinola, herri triste bat zegoen. Herri triste horretan ez zegoen alaitasunik, ez zegoen edertasunik, ez zegoen polita zen gauza bat ere ez. Umeek ez zuten parkeetan olgetan, gazteak ez ziren kaleetatik maiteminduta paseatzen, zaharrek ez zuten inoiz irribarre egiten. Pertsona bakoitza bere buruarentzako bakarrik bizi zen. Herri triste bat zen.

Baina egun baten, herri triste horretako mutil bat konturatu zen triste bizitzea ez zela gauza ona, askoz ere hobe zela pozik bizitzea. Poztasuna osasunarentzat askoz hobe zen. Triste bizitzeak ez zekarren ezer onik. Horregatik pentsatu zuen herri horretan poztasuna zabaltzea eta horretarako bere anaia nagusiari eskatu zion laguntza.

Anaia biak hasi ziren orduan lanean eta kartelak egitea erabaki zuten. Kartel horietan poztasuna zein ona den esaten zuten eta herri triste horretako leku guztietatik kartelak jarri zituzten. Horrela, jendea triste bizitzea zein tristea den konturatu zen baina ez zekiten zelan pozik bizi. Orduan bi anaiei idatzi zioten pozik zelan bizi ahal zen galdetzen. Anaia biek ez zekiten zelan erakutsi jendeari zelan bizi ahal ziren pozik, beraiek ez baitzekiten pozik bizitzen, eta orduan pentsatu zuten guztiak batuko zirela herriko plazan pozik bizitzea zer zen eztabaidatzeko. Plazan bilduta zeudela, jendea eztabaidatzen hasi zen bakoitzak berarentzako pozik bizitzea zer zen esanez:

—Pozik bizitzea, maitatzeko norbait edukitzea da —esan zuen gazte dotore batek.

—Pozik bizitzeko onena beti txisteak kontatzen ibiltzea da —esan zuen herriko tabernariak.

—Pozik bizitzea lagun asko edukitzea da —esan zuen zapatariak.

Eztabaida asko eta asko luzatu zen baina ez ziren akordio batera heltzen eta bi anaiak tristetu ziren beraien nahia bete ez zela ikustean. Orduan anaia nagusienak esan zuen:

—Ederki. Ez garenez akordio batera heltzen bakoitzak berarentzako pozik bizitzeko egin behar dena egingo du eta horrela guztiok biziko gara pozik.

Eta horrela, herriko jendea pozik bizitzen saiatu zen. Eta askok lortu zuten.

Baina herri hori triste izateari uzten ari zela ikustean, Tristetuz, tristeziaren jauna, haserretu egin zen eta herrira joan zen jendeari poztasuna kentzera. Tristetuz, tristeziaren jauna poztasun guztia kentzen hasi zen eta bi anaiek egindako guztia apurtu zuen. Jendea, poztasunik gabe, triste bizitzen hasi zen berriro. Baina orain lehen baino tristeago, pozik bizitzea zein ederra zen bazekitelako.

Bi anaiak, orduan, negarrez hasi ziren eta bi umeen negarra entzutean superheroi bat agertu zen herrian. Superheroi horrek Super-poztasun zeukan izena eta poztasunaren defendatzailea zen. Super-poztasunek, Tristetuz tristeziaren jaunaren kontra borrokatu zuen eta akabatu zuen. Orduan herriko jende guztia oso pozik jarri zen tristezia desagertu zelako.

Orduan bi anaiek Super-poztasuni galdetu zioten:

—Zelan bizi ahal gara pozik?

Super-poztasunek irribarretsu erantzun zien:

—Pozik bizitzeko adiskidetasuna, maitasuna, errespetua, lankidetzeta eta abar dira oso garrantzitsuak; baina garrantzitsuagoa da beti gauza guztiei alde ona ateratzea.

Eta umeek galdetu zioten:

—Eta nola egingo dugu hori?

—Ba beti irribarretsu ibiltzen —eta hau esanda, irribarretsuk alde egin zuen hegaz.

Herri triste horretako jendeak pozik bizitzen ikasi zuen Super-poztasuni esker eta herriari izena aldatu zioten. Hortik aurrera Poztasunaren herria deituko zen.



ESKERRIK ASKO
SUPER-POZTASUN

Betidanik

*Irati Pérez Muñoz
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Betidanik gustatzen zaizkit animaliak, txakurrak batez ere, eta beti animaliairen bat edukitzea espero dut. Baina arazo bat dago. Nire gurasoei ideia ez zaie gustatzen, horregatik ia astebururo joaten naiz Itziarren baserrira.

Nire amaren lagun batek, Itziar, baserri bat dauka. Itziarrek nire amarekin lan egiten zuen. Orain bera beste lantegi batera joan da. Bere senarra, Rafael, mundutik zehar joaten da. Cesar haien laguna da. Cesarrek autoak konpontzen lan egiten du eta, gainera, nire hipikako irakaslea da. Gu biok menditik eta herritik joaten gara zaldiz...

Zaldiez hitz egiten ari naizela! lau zaldi daude: Cotón, Ronquillo, Colino eta Zaira.

Gainera, lau txakur: Nana, Tartán, Pirata eta Wilson.

Asto bat (Lutxi deitzen diogu baina benetan Lucia deitzen da).

Pottoka bat: Jarmatán; bi katu: Gipsy eta Pérsibal eta Donut, dordoka bat...

Hau da familia!!!

Han haien artean pozik sentitzen naiz eta horregatik, noizean behin, idazten dut. Bat batean ideiak etortzen zaizkit burura eta zas! harrapatzen ditut. Horretarako beti daramat koaderno urdin txiki bat gauzak, sentimenduak... gordetzeko.

Pasa den udaberrian, koaderno urdin horretan istorio bat idatzi nuen:


Rafaelek bere bidaia batean zaldi bat ekarri zuen. Ronquillo deitzen zen. Oso ona izan zen lasterketetan baina orain zahartuta dago horretarako. Lasterketa askotan parte hartu zuen eta sari asko irabazi zituen.

Egun baten, Ibanek, bere zaldizkoa, beste zaldi bat erostea erabaki zuen. Orduan Rafael agertu zen eta Larrabetzura ekarri zuen. Herrian denek maite zuten, umeez batez ere.

Egun baten mendian zegoen belarra jaten eta, bat batean, laprast egin zuen eta amildegitik behera jausi zen. Hurrengo egunean, Rafael eta biok zaldiei janaria ematera joan ginen eta Ronquillo zaurituta aurkitu genuen.

Egun hartatik hona, nik bera zaintzen dut eta berak ni zaintzen nau.

Egun hartatik hona albaitari izan nahi dut, betidanik gustatu zaizkidalako animaliak.



B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



Egun madarikatua

*Iñigo Casado Martínez,
La Salle Bilbao HLBHIP.*

Bazen behin Pepe izeneko ume bat. Egun batean, igandea zelarik, esnagailua goiz-goizean ipini zuen bere gurasoei kafea eta gosaria prestatzeko. Kafea gainean jausi zitzaioan Peperi eta, oso bero zegoenez, asko oihukatu zuen... bere arreba esnatu arte! Hori ere oihukatzen hasi zen (3 urte zeuzkan) gurasoak esnatu arte! Bukatzeko, Pepe, gosaria hartzen zegoenean, aulkitik jausi zen eta mina hartu zuen.

Igandea zenez Pepe Plaza Barrira joan zen kromoak aldatzera baina ez zuen kromo batere aldatu, plazan jenderik ez zegoelako. Zelako igande txarra! Gero Pepe joan zen taberna batera bere gurasoekin zerbait hartzera. Ez zuen hartu ezer, berak nahi zuena ez zegoelako.

Jarraian, joan zen etxera bazkaltzera. Mahaia prestatzerakoan edalontzi bat jausi zitzaion Peperi eta konturatu gabe, zapatila barik zegoenez, kristal zati bat zapaldu eta odola atera zitzaion. Zelako mina! Gainera, gero, bazkaltzeko zera zegoen: barazki purea, ilarrak eta kiwia. Gutxien gustatzen zitzaiona! Behintzat pelikula on bat zegoen telebistan: Harry Potter... baina telebista izorratu egin zen eta pelikularik gabe geratu zen Pepe.

Arratsaldean lagun baten etxera joan zen, baina igogailuan zegoenean gelditu egin zen. Ez zihoan ez gora ez behera. Eskerrak telefono eramangarria poltsi-

koan zuela... baina bateriarik gabe! Ordubetez itxaron behar izan zuen igogailua mugitu arte.

Azkenik lagunekin kalera atera zen. Behintzat igogailuan ataskaturik geratzeko arriskurik ez dago futboleko jolastean. Hala ere, partidua hasi eta 15 minutu pasatu eta gero, baloiak kristal bat apurtu eta leihotik pisu batean sartu zen. Jarraian, gizon haserre baten burua agertu zen esanez:

—Zuek, ezagutzen zaituztet. Zuen gurasoei kontatuko diet. Kristala ordaindu beharko duzue. Seguru nago zigor eder bat izango duzuela. Ah, baloiarekin neu geratuko naiz!!!

Bueno, ikusten denez, igandea ez zen hobetzen, kontrakoa, gero eta txarra go zihoan guztia.

Igande arratsaldero bezala Athleticen partidua zegoen, eta lagunek eta Pepek ikusi nahi zuten. Kopa laurdenak ziren eta bukatzeko hamar minutu geratzen zirenean bi eta huts irabazten ari zen Athletic. Bat-batean beste taldeak gola sartu zuen, argi eta garbi aurrelaria jokoz kanpo zegoenean, baina arbitroak betaurrekoak erabiltzeko behar handia zeukan, gola onartu zuelako. Txarrena zera izan zen: Hurrengo minutuan Athleticen area barruan beste taldeko jokalaria batek bere burua “igeritokira” bota zuen. Bainujantzia bakarrik falta zitzaion! Arbitro itsu ospetsuak kontrako penaltia seinalatu zuen eta besteek partidua berdintzea lortu zuten.

Ondo atera ahal zen beste gauza bat, berriro, egun beltz hartan, gaizki atera zitzaion Peperi.

Ettxera ailegatu eta Pepek bazekien bere gurasoek ordu erdiz ordenagailuan jolasten uzten diotela baina, bere arrebak ikastetxeko etxerako lanak egin behar zituzenez eta horrek beti lehentasuna daukanez, ezin izan zuen ordenagailuan egon. Suerte txarra egun horretakoa.

Pepek ohera joatea erabaki zuen, horrela eguna azkarrago amaituko zelakoan. Lehenengo aldiz bere bizitzan asteburua amaitzeko, astelehena izateko eta klasera joateko gogoa zuen!





*Irati Casado Burguete,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

—Kaixo Jumy, ze toki gazian topatu garen!

—Bai horixe. Egia esanda itsasoan topatu gara.

—Jo, zenbat denbora ikusi barik!

—Bai, Jimy, ez gara ikusten hodeian batera geundenetik.

—Ah bai! Gogoratzen zara hodeian batera geundenean? Haiek garaiak haiek!

—Eta gogoratzen zara loditzen hasi ginenean eta hodeitik jausi ginenean?

—Bai, zelako barreak egin genituen.

—Eta zu nora eramán zaitu etorkizunak?

—Ba ni lurralde siku batean jausi nintzen. Lurralde hartan ez zegoen nire moduko askorik eta, horregatik ni oso baliotsua nintzen. Baina inportanteena zen denek oso ondo tratatzen nindutela. Gauza askotarako erabiltzen ninduten, adibi-



dez: garbitzeko, landareak ureztatzeko... Orduan egun eguzkitsu baten, andre batek landare polit bat ureztatu zuen eta ni lur-azpira sartu nintzen. Bidaia polit hori ibai baten amaitu zen eta ibai horretatik itsasora heldu nintzen. Eta zure bizitza horrelakoa izan da?

—Bueno... horrelakoa ez. Ni lurralde baten jausi nintzen. Baina lurralde horretan nire moduko hainbat zeuden, horregatik ez zuten uste baliotsua nintzenik. Nik hodi bat zeharkatu nuen eta txorrota batetik jausi egin nintzen. Eta berriro itsasoan agertu nintzen.

—Beitu ze berdinak garen baina ze desberdin tratatu gaituzten!

—Ez duzu sentitzen pisu gabe zaudela, hegaz egiten ari zarela eta bero handia duzula?

—Bai, berriro goaz hodeiraaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!



Beti min berdina

Gorka Mediavilla Briones,
Uribarri LHI.

Etxera heltzen nintzen bakoitzean, nire senarrak beti jipoi berdina. Beti min berdina. Beti gorroto berdina. Ezin nuen jasan, baina hala zen. Zer egin ahal nuen nik berak botere handiagoa bazeukan? Ezer ez. Beraz, jipoia jasan behar.

Ezkondurik ginenean nire bizitzako gizona zela uste nuen, baina denborak dena aldatu du eta orain gorroto dut. Poliziari esan? Ez. Bestela, hil egingo nau ikusten garen lehenengo aldian; eta beldur horrekin bizi beharko dut nire bizitza osoan. Eta ez dut hori nahi. Bizi nahi dut, ez horrela, baina bizi behintzat.

Goizean lanera joaten naiz eta bera lagunekin ardoa eta garagardoa edaten. Ni lanean aritu eta bera edaten. Etxera joateko ordua heldu, eta beldurra nire gorputzetik zabaltzen da. Zergatik beldurra etxeari, teorian gure babes-lekua bada? Baina nik beldurra diot, itzela! Etxera heldu, eta bera ni jotzen dibertitzen da. Nik mina sentitu, eta berak poza. Egunero horrela da.

Zergatik dute gizonak botere handiagoa emakumeek baino? Galdera asko egiten dizkiot neure buruari, eta gehienek ez dute erantzunik. Zergatik horrela bizi-tza? Zergatik horrelako jendea? Ez dakit; ez nik ezta inork ere.

Zerbait egin behar nuen hori aldatzeko, jipoia ez jasotzeko.

—Orain edo inoiz ez; poliziari esango diot! Berdin dio gero zer gertatzen den.

Gauean irten nintzen. Isil-isilik, senarra ez esnatzeko. Komisaldegirantz abiatu nintzen. Kalea iluna zen eta jende gutxi zegoen. Gizonak niri begira. Ni urduri eta azkar oinez. Komisaldegira sartu nintzen eta poliziari gertatutakoa esan nion.



Hango egongelan itxaroten egon eta gero, mediku-aztertzaile batengana eramane ninduten. Medikuak aztertu ninduen eta gero aterpe batera eramane ninduten babestuta egoteko. Nire senarrari, berriz, niregandik 300m urruntzeko esan zioten.

—Ez zen hau espero nuena; baina... —pentsatzen nuen.

—Hemen geratu beharko zara egun batzuetan dena konpondu arte eta arriskua igaro arte —esan zidaten.

Etxea ez zen oso eroso, baina bertan bizi ahal zen. Beharbada, ohitura falta.

Egunak joan, egunak etorri, eta aldaketarik ez, baina aztertzaileek aztertzen segitzen zuten, frogas asko behar zirelako eta lan erraza ez zelako, noski! Beldurra nuen, 300m urruntzeko agindua ez zen nahikoa. Edozein momentuan aterpera sartu ahal zen eta ni hil.

Egunak oso poliki igaro ziren baina, azkenean, frogas nahikoak genituen epaiketa hasteko. Ni nire abokatuarekin joan nintzen eta nire senarra berearekin. Epaiketa bizia izan zen, eta luzea. Azkenean, nire senarrari 9 urte ipini zizkieten zigor moduan. Nire ustez nahikoa!

Orain oso pozik nago. Bizitza neure modura eramane ahal izango dut eta neure gustura bizi. Jipoiak ahaztuta ditut, minarekin eta gorrotoarekin batera. Dena aldatu da. Inork ez dit agintzen. Bizitza neurea da.



Mariren egunerokoa

Ainhoa Arce Muñoz,
Deustuko Ikastola IPI.

2

011ko maiatzaren 20a

Kaixo egunerokoa:

Gaur eskolara joan naiz eta nire klasean mutilik goapoena dago.



Baina pena handia da! neskari goapoenaren alboan jesarri behar naiz eta beti-beti dago ispilu batekin begiratzen edo azazkalak margotzen. Ai ene! Zer egingo nuke nire lagun mina ez balego?




Nire lagun minak Sheila dauka izena eta gainera Sheila nire klasekoa da.

Maiatzaren 22a

Gaur kontatuko dizut non bizi naizen, zein kaletan, ze ataritan eta solairutan, nolakoa eta nortzuk diren nire familiakoak.

Ni Mirlon izeneko herritxo baten bizi naiz, Sarmandakan kaleko 20 atarian. Nire solairua 5. ezkerre da.



Nire familia normala da bueno ia normala. Lehenengoz, azalduko dut nolakoa den ama. Bigarrenez nolakoa den nire aita. Hirugarrenez, azalduko dut nolakoa den nire neba eta azkenik nolakoa den nire nebaren neska laguna.

1. Nire ama oso majoa da, baina zirika asko egiten du.
2. Nire aita oso majoa da. Gainera nire amak zirikatzen didanean, aitak esaten dio ez zirikatzeko ume bat naizelako.
3. Nire neba majoa da batzuetan. Nebak eta nik gehienetan borrokatzen dugu baina biok maite gara.
4. Nire nebaren neska laguna oso majoa da. Batzuetan jeloskortu egiten naiz baina maite dut pila.



Maiatzaren 25a

Kaixo egunerokoa:

Gaur badakizu zer gertatu zaidan? Gaur mutil goapoenak esan dit:

—Kaixo, zer moduz zaude?

Ni gorri-gorri jarri naiz eta ez diot erantzun. Zu bizirik bazeunde, ikusiko zenuke eta harrituta geratuko zinateke. Ai... eguneroko maitea, gainera Laurak, neskarik goapoenak, esan dit:

—Zuk maite duzu Josu?

Nik erantzun diot:

—E...? Bai. Eta?

Laurak esan dit baietz, bera ziur dagoela bere neska laguna izango dela. Nik barre egin dut ze Josuk ez du esan nor gustatzen zaion.

Abenduaren 20a

Gaur badakizu noren urtebetetzea den?

Nire urtebetetzea da. Nire urtebetetzean oparitu dizkidate: liburu bat, arkatzak, artaziak, marrazteko izurde bat.

Agur, afaltzera joan behar dut. Musu bat, Mari.



Urtarrilaren 19a

Gaur eskolara joan naiz eta jantokian, lehenengo platerean, indaba zuriak egon dira. Bigarren platerean: arraina eta postrea: jogurta.

Ai... zelako janaria jartzen diguten eskolan!

Arratsaldean jan eta gero Josu nigana etorri da eta esan dit:

—Badaukazu mutil lagunik?

Nik esan diot ezetz, ez daukadala mutil laguna. Bera joan da saskibaloira jolastea.

Ni inoiz ere ez. Ez naiz inoiz izango bere neska laguna.

Agur, egunerokoa. Musu bat, Mari.



AMAIERA

Sagi banpiroa

Ainhoa Franco Santana
Felix Serrano LHI.

Sagi banpiroa da eta 185 urte ditu. Gozozalea da eta oso bihurria.

Igandeetan beti diabetikoen odolaren botila bat erosten du.

Egun batean dentistarengana joan zen eta esan zion:

—Hortzak pikatuta dituzu. Noiz edaten duzu diabetekoen odola?

—Igande guztietan botila bat —erantzun zion Sagik.

—Hori asko da!!!

—Ez da hainbesterako —esan zion Sagik.

—Orain hilean behin joan ahal zara odol dendara. Eta gehiagotan joaten bazara, aparatua ipiniko dizut. Ongi da.

Dentistatik ateratzean pentsatu zuen: “Botila batengatik ez da ezer gertatuko”. Eta bat erostera joan zen. Edaten zegoela, tapoiaren barruan “tokatu zaizu” ipintzen zuela ikusi zuen. Orduan, gogoratu zen zozketa bat zegoela eta bi umek Truki fabrikara (likidoak botiletan sartzeko fabrika) joateko aukera izango zutela ezagutzeko; horretaz gain, sari bat izango zuten.



Korrika Metro banpirora joan zen. Han Txinako bidea hartu zuen (hor dena egiten da, botilak ere bai). Ailegatu zenean Truki fabrikaz galdetzen hasi zen. Eran-tzuna hartu zuenean harantz abiatu zen.



Fabrikan neska bat ikusi zuen. Sagik galdetu zion:

- Nola deitzen zara?
- Eider, eta zu?
- Sagi
- Sagi? —galdetu zion— Zer izen arraroa!
- Errumaniar bizi naiz Drakula, nire aitarekin.
- Orduan banpiro bat zara? Ez didazu odola xurgatuko, ezta? —galdetu zuen harrituta Eiderrek.
- Ez, lasai. Nik odola erosten dut. Diabetikoa zara?
- Bai —esan zuen beldurrez.
- Niri diabetikoen odola gustatzen zait, baina

nire laguna zarenez ez dizut ezer egingo. Nire dentistak esan dit azukre gehiegi jaten dudala. Nik ez nion kasu egin eta botila erostean tokatu zitzaidan. Eta zuri, nola tokatu zitzaizun?

—Ni korrika egiten nenbilen eta 10 km egin nituenean, ur botila erosi nuen eta tokatu zitzaidan.

Kutin Truki (Truki fabrikako zuzendaria) atera zen bere bi irabazleak agurtzeko. Jende asko zegoenez, sartzeko keinua egin zuen.

Fabrika oso aspergarria zela ikusi zuten, langile askok beti berbera egiten zutelako. Saria emateko ordua ailegatu zenean konturatu ziren saria Sagiren eta Eiderren adiskidetasuna zela.


Orduan Eiderri kirola egitea gustatzen zitzaiolako, ikasi zuen osasungarria zela eta Sagi dentitari kasu egiten hasi zen.

Sagi eta Eider oso lagunak izan ziren.





Libe López Arandia
Felix Serrano LHI



— ik hamaiketarako hemen egoteko esan nizun! Zer (hitz itsusia) egiten ari zinen orain arte? (Hitz itsusia)!!

—Baina jadanik baditut hamasei urte!!

—Ba, oraindik kasu egin behar didazu, hamazortziak bete arte!

Haserretu eta nire logelara joan naiz. CD baten bila hasi naiz. Bila eta bila baina ez da inon ageri bila nabilen rock CD hori. Horren ordeaz 5.000 piezako puzzle bitxi bat aurkitu dut, oso bitxia, benetan. Kutxa ez da oso handia, eta gainazalean marrazki oso arraroa dago. Ez dakit zer irudi ageri duen, pieza guztiak desberdinak baitira. Baina hori ez da arraroena, ez horixe. Benetan harritzen nauena da ez duela idatzita noiz eta non fabrikatu den. MADE IN CHINA horietako bat izango al da? Estreinatatu eta hurrengo egunean apurtzen dena? Ez dut uste. Baina, auskalo.

Tapa altxatu eta pieza gorrixka bat hartu dut. Izar laranja batzuk ditu margotuta. Bai bitxia!! Izarrak mugitzen hasi dira!! Puzzleak nahiko beldurtu nau, baina aluzinazioak direla suposatu dut.

Pieza amonak egindako alfonbra gainean jarri dut. Begira geratu naiz eta izarren mugimendu lasaiak hipnotizatu egin nau. Ez! Ez naiz lokartu behar. Puzzlea egin behar dut, amari erakusteko zertarako balio dudana. Berrirori begiratu dut pieza, baina oraingoan seko utzi nau.



Orain unibertso arraro batean nago. Unibertso polit bat, hori bai. Pentsatzen hasita, nire pieza gorrixka bezalakoa da: beltza eta ilun-iluna da, izar argitsuek baino ez dute argitzen. Izar baten gainean nago, eta izarra mugitzen ari da. Gainerako izarretan ere badaude gauzak, baina urrun daudenez lauso ikusten ditut.

Izarrak bota egin nahi nauela ez da dudarik, ez baita gelditzen. Ni bere hamahiru adarretako batera lotu naiz. Ai ama!! Bota egingo nau izar madarikatu honek!! Eta erortzen banaiz... nora ote noa? Hobeto ez pentsatu. O! Ez! Bota egin nau! Memento batzuetan beldurragatik pentsatu ere ez dut egin nora ote noan.



Baina, zerbaitek geldiarazi egin nau. Minutu batzuk egon naiz konorterik gabe. Azkenean begiak irekitzen ausartu naiz. Hobe ez banitu ireki. Nire inguruan zerbait ikusi dut, itzal bat edo. Hau amets gaizto bat da, ez dago dudarik. Atximurkatu egin naiz besoan, behingoz esnatzeko. Ez naiz esnatzen. Berririo atximurkatu naiz, eta berririo, eta berririo. Hau da zorte txarra, ez naiz esnatzen.

Norbaitek edo zerbaitek hitz egin dit:

—Ez zaitez esnatzen saiatu...

Lehen txarto, ba orain txarrago. Beldurrak akabatuko nauela uste dut. Albotik pasatu den izar argitsu batera egin dut salto. Hau ez doa hain azkar, baina... Oso bero dago! Erre egingo naiz! Beste izar batera aldatu naiz.

Hau ez dago batere gaizki: mantsoa da eta ez du erretzen... Baina, antza denez, ez nago bakarrik. Izaki bitxi bat dago nire ondoan. Hau da hau! Bizkarrera salto egin eta itsatsi egin zait. Kendu egin dut gainetik. Berririo? Oraingoan kentzea zailagoa da. Hau nazka! Mukia bezalakoa da, gorria eta nazkagarria. Kentzen saiatu naiz, baina alferrik. Izar urdin batera egin dut jauzi.

Urezkoa da. Aupa! Niri ura izugarri gustatzen zait! Eta dirudienez muki gorriari ez, beste izar batera egin baitu salto. Zer da hau? Zulo bat! Erori egin naiz azpian dagoen izar batera.

Hemen beroaren orde hotza, eta zelako hotza! Berrogei gradu zero azpitik, gutxienez. Berehala inguratu nau izotzak. Orain izotz bloke batean nago, baina irristatu eta beste izar batera erori naiz.

Oraingo hau urre eta diamante nahaste bat dela uste dut. Hain gogorra da zein eta izotz blokea puskatu eta milioi bat zatitan txikitu den. Ez dakit zergatik baina ez dut atsegin izar hau. Horregatik beste izar batera egin dut jauzi.

Zoritzarrez izar horrek ohe elastiko bat du. Errebotatu eta erori egin naiz: Aaaaaaaahhhhhhhhhhhhhhhhhhhhhhh!!!



Bat-batean nire logelan agertu naiz berriro ere, puzzle kutxaren aurrean. Non ote dago nire pieza gorrixka? Unibertso arraro horretan gelditu al da? Uste dut nik behar dudana atsedean hartzea dela. Pijama hartu eta arropa eranzten hasi naiz. Prakak, kamiseta... Baina, zer da hau? Zer da zilborraren eskuinaldean daukadan marrazki hau? Nire pieza! Izar eta guzti!

Pijama janzten amaitu eta lorategira jaitsi naiz puzzlearen kutxa besopean eramanez. Lorategian pala bat hartu eta zulo bat egin dut. Puzzlea hor sartu eta estali egin dut berriz ere, inork aurkitu ez dezan. Lasaiago berriz ere etxera sartu naiz, baina han zegoen ama nire aurrean kontu eske.

—Non egon zara ordu hauetan? —galdetu dit amak.

Ezer esan gabe bere sorbaldan burua jarri eta negarrez hasi naiz.

—Ez dakizu zelako beldurra pasatu dudana, amatxo.

—Baina non zeunden? —jarraitu du amak.

—Ez zenidake sinestuko —erantzun diot.

Amak oheratu egin nau, zazpi urte nituenean bezalaxe.

—Gabon —esan diot.

—Gabon.

Lokartzeko zorian nengoenean sabelean agertu zaidan marrazkia begiratu dut. Baina ez dago. Hala ere, ez dut gau hau inoiz ere ahaztuko.



Deustuko hilketa

Christian Blanco Lourenco
Deustuko Ikastola IPI.

Antzina, Deustun bazegoen mutil bat oso iheskorra eta Bully bat Txomin izenarekin. Txominek bakarrik 11 urte zituen eta Deustuko ikastolara joaten zen. Deustuko ikastolan pirak egiten zituen eta ikastolara joaten zenean bakarrik zen jendea jotzeko.

Egun baten Deustuko ikastola erre zuen eta hortik aurrera makarra bihurtu zen. Jende guztiak beldurra zion. Hurrengo egunean hiru irakasle hil zituen klase-aren ostean, kalezulo baten.

Polizia internacionala ikertzen hasi zen kasua eta Txomin Ameriketara joan zen ihes egiteko eta izena aldatu zuen eta Nimoxi izena hartu zuen. 3 urteren ondoren poliziak aurkitu zuen eta Deustura eraman zuen detenituta. Deustun neska batekin enamoratu zen eta neska hori ere enamoratu zen Nimoxitekin eta neskak kartzelatik atera zuen. Neska hori Ajaomia deitzen da.

Nimoxi eta Ajaomia urte baten ondoren ezkutuan ezkondu ziren eta biak batera munduko alproja txarrenak bihurtu ziren. Nimoxitek eta Ajaomiak urteekin jende guztia beldurtzen zuten eta mundutik joaten ziren jendea hiltzen eta mundu guztia menperatuta zeukaten.

Biak oso ondo bizi ziren, eta munduko pertsona guztiak euren esklaboak edo zerbitzariak ziren. Biek munduko harri bitxi guztiak eta dirua zeukaten, baina kon-

turatu ziren ume bat eduki behar zutela eta gau guztietan saiatzen ziren. Bi hilabete ondoren lortu zuten eta Ajaomia umedun gelditu zen eta ia-ia urte hori pasatuta umea jaio zen.

Aste bat zeukala umeak, pertsona batek umea hil zuen eta honela gelditu zen umea:



Ajaomia eta Nimoxk asko haserretu ziren eta euren umea hil zuen pertsonaren bila joan ziren. Lehenengo Afrikara joan ziren. Ume hori hil zuen pertsona, Unai, Afrikan zegoen. Ajaomia eta Nimoxk ikusi zituenez Afrikatik ihesi joan nahi zuen, baina Ajaomiak eta Nimoxtek ere ikusi zuten eta bere atzetik joan ziren. Unaik lortu zuen Ajaomia eta Nimoxk despistatzea eta Afrikatik ihes egin zuen Madagaskarrera, baina Ajaomiak Madagaskarren familia zeukan eta abisua jaso zuen. Ajaomia eta Nimoxk korri-korrikan joan ziren beren bila. Madagaskarren lortu zuten Unai harrapatzea, baina despistatu ziren eta Unaik ihes egin zuen.

Unai Argentinara joan zen, baina Nimoxtek han familia zeukan eta abisatu zuten eta Nimoxk eta Ajaomia beren bila joan ziren Argentinara eta kostatu zitzaien Unai aurkitzea.

Aste baten ostean aurkitu zuten baina, Unai oso iheskorra zenez, Ajaomiak eta Nimoxtek ez zuten lortzen harrapatzea.

Polizia Ajaomia eta Nimox-en atzean dabil eta auto hau dute:



Ajaomia eta Nimox auto honetan joaten dira:



Eta Unai auto honetan:



Auto karreren moduan, pertsekuzioan, lau hilabete eta gero, poliziak Ajao-
mia eta Nimox harrapatu zituen, eta Ajaomiak eta Nimoxtek Unai. Poliziek Ajao-
mia, Nimox eta Unai kartzelako gela berdinean jarri zituzten eta urteekin lagun
egin ziren.

Ajaomia, Nimox eta Unai munduko alprojak ziren eta oso ondo bizi ziren,
baina 11 urteren ondoren mundua gobernatzen beste mutil bat, Christian, jarri
zen. Hirurak hil zituen eta Christian munduko salbatzaile bihurtu zen, horrela
mundu guztia oso ondo bizi izan zen.

Amaiera

C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



Norvegiako etxea

Nerea Mazo Antón,
Gabriel Aresti BHI.

Duela zenbait urte Irlandan, zehatzago Dublinen, Brid izeneko neskatxa xelebrea bizi zen. Oso alaia zen, jatorra eta pixka bat arraroa ere bai. Ez zituen lagun askorik, baina ez zitzaion axola.

Egun batean amak esan zion Bridi Norvegiako aitita eta amamaren etxe zaharrera joango zirela bizitzera, zeukaten etxea oso txikia zelako familiarentzat. Bridi ez zitzaion hain ideia txarra iruditu.

Aste bat pasa ondoren iritsi ziren Haugesund izeneko Norvegiako herri txiki batera. Han kristoren etxea zeukaten, oso zaharra bazen ere. Etxearen atarian plaka bat zegoen etxea eraikitzen hasi zirenetik amaitu zuten arteko datekin: 1690-1700. Brid harriturik geratu zen.

Etxe horrek denbora pila zeraman abandonaturik, belarra txarto zainduta, tei-latua erdi apurtua etab. Etxera sartutakoan neskatoak korrika alde egin zuen bere logelaren bila. Etxeko logelarik handiena hartu zuen eta bere maletak desegin zituen. Berehala hasi ziren etxea txukuntzen eta ondo jartzen. Gauza zaharrak botatzen, hautsa kentzen, armairuak konpontzen...

Bridek lumaz idatzitako gutun zahar bat aurkitu zuen. Gutuna irakurri zuen:
Kontuz! etxe honetan gauza arraroak gertatzen dira.

Bridek ez zuen ezer ulertu eta ez zion kasu handirik egin gutunari.



Egunak joan, egunak etorri, ez zen ezer gertatu. Neskaxa etxea esploratzen hasi zen. Etxe barruan ez zuen ezer arrarorik aurkitu, ganbaran arropa zahar batzuk eta belarra lantzeko tramankulu zaharkituak besterik ez zituen aurkitu. Lorategia esploratzera joatea erabaki zuen. Han ez zuen ezer aurkitu, gainera belar luze haiekin ezinezkoa zen. Baina derrepente ur putzu handi bat ikusi zuen eta ur azpian burdinazko ate bat. Uretara sartu eta ateraino heldu zen. Atea kostata ireki zuen, eta bertara sartu zen. Ez zegoen ezer ere. Bilatzen eta bilatzen hasi zen eta beste gutun bat aurkitu zuen, bestea bezala tintaz idatzita. Honela jartzen zuen:

Oso arraroa izango litzateke norbaitek karta hau ikusi ahal izatea baina badakit, niri laguntzeko prest egongo zarela.

Bi gauza behar beharrezkoak dira: adorea eta adimena.

Jarraitu honelako kartak bilatzen, mesedez. Hurrengo gutuna etxearen erdi-erdian dago. Zorte on!!

Neska harriturik zegoen, baina pertsona horri laguntzeko prest ere bai. Pentsatzen hasi zen,

—Etxearen erdiko partea... mm... badakit, liburutegia!!

Liburutegira iritsi zenean liburuak besterik ez zituen ikusi eta han bilatzen hasi zen, liburuen barruko aldeetan, armairuetan, tiraderetan... leku guztietan; hala ere,

ez zuen ezer ere aurkitu. Urre koloreko liburu bat ikusi zuen eta pentsatu zuen horren barrualdean egon zitekeela hurrengo gutuna. Liburua ateratzen zegoela, liburuak palanka baten antzera biratu eta horma mugitu egin zen, beste gela misteriotsu bat agerian utziz. Han sartu eta gelaren erdiko mahaian hirugarren gutuna aurkitu zuen. Gutunak hauxe zioen:

Bikain aritu zara orain arte!! Baina oraindik gailena falta da. Ez dago gutun gehiagorik, baina gutunak esaten duena jarraitu behar duzu pausoz-pauso. Etxearen goialdean, ganbaran, ate ezkutu bat dago egur batzuen atzean. Hortxe dago atea. Oso garrantzitsua da inork ez ikustea egiten duzuna, ongi da?? Etxeko logelarik handienez koadro batean, ohol baten atzean ganbarako ateko giltza dago. Kontu handiz hartu. Kontuz etxean dagoen jendearekin! Zure familiak edo lagunak ez zaituzte ikusi behar giltza horrekin. Hara heltzen bazara jakingo duzu zergatik. Beno, konfiantza handia daukat zuegan, mesedez, ez huts egin. Zorte on!!

Giltzaren bila joan zen korrika eta kostatu zitzaion koadroaren atzeko oholak kentzea. Afalordua iritsi zenez, hurrengo egunera arte itxaron beharko zuen ganbarara igotzeko. Biharamunean goiz-goizetik esnatu zen eta gosaltzera jaitsi zen. Gurasoak lotan zeudenez papertxo batean idatzi zien bueltatxo bat ematera zihola eta bazkalordurako iritsiko zela. Orduan giltza hartu eta isil-isilik ganbarara igo zen. Nahiko erraza izan zen ohol haiek mugitzea. Hori egin ostean atetik sartu eta pasabide batera heldu zen. Pasabidea koadroz beterik zegoen baina ez zegoen ezer gehiagorik, bakarrik pasabidearen bukaerako atea. Momentu horretan konturatu zen ez zeukala ate hori irekitzeko giltzarik. Bat batean, zarata bat entzun zuen. Norbait atea irekitzen ari zen. Baina non ezkutatu? Atea ireki zenean Brid atearen atzean ezkutatu zen eta pertsona misteriotsu bat pasabidetik aurrera ibiltzen hasi zen. Ezin izan zion aurpegia ikusi baina emakume antza zeukan. Orduantxe, Brid pasabidetik irten zen eta ganbaran geratu zen pertsona horri begira. Pasabide bukaerako atea irekitzen ikusi zuen. Zorte ona izan zuen, atea ez zen guztiz itxi eta. Pasabidetik isil-isilik ibiltzen hasi zen. Emakume misteriotsua zegoen gelara iritsi eta atearen zirrikitutik begira geratu zen.

Pertsona misteriotsua etxeko garbitzailea zen. Gela horretan altxor bat zeukan gordeta eta gizon bat bahiturik. Gizon hori desagertutako aitita zen. Baina zer egiten zuen han? Bridek koadro bat hartu zuen eta garbitzaileari buruan eman zion, zorabiatu egin zen eta bere aitita askatu zuen. Poliziari deitu zioten eta neska kartzelara eraman zuten lapurreta eta bahiketagatik.

Sustoa pasatu eta gero aititak kontatu zien etxe horretan altxor bat zegoela, baina bi parte ezberdinetan banatuta eta garbitzaileak parte bat lapurtu zuela. Beste partea lapurtu nahi zuen baina ez zekien non zegoen eta aititak bai, horregatik bahitu zuen.

Aititak espero zuen egunen batean bere familia etxe horretara bizitzera joatea eta horregatik utzi zituen gutunak.

Azkenean horixe gertatu zen. Dena ondo atera eta pozik bizi izan ziren betirako.

Bilboko misterioa


Ainhua Narvaez Pacho,
Zurbaran BHI.

Egun batean ume batek bere aitonari esan zion:

—Aitona, kontatu ipuin bat, mesedez.

—Ederki, baina ez moztu ipuinaren erdian beti egiten duzun bezala.

Neguko gau ilun eta hotz batean bi lapur Guggenheim Museoko bi margolan lapurtzeko prest zeuden. Batek alarma kendu zuen, eta besteak, bitartean, atea ireki. Sartu zirenean zaintzaile bat konturatu zen, baina bien artean lotu zuten. Bi koadro hartu eta ihes egin zuten.



Hurrengo egunean lapurreta egunkari, irrati eta telebista guztietan atera zen. Kazetari mordoa zegoen Guggenheim Museoan eta polizia dena aztertzen zegoen, ze edo zer aurkitzeko asmoz. Poliziak ez zuen ezer aurkitu, bakarrik papertxo bat eta hauxe zuen idatzita:

"Larunbatean gaueko hamabietan Arriaga antokian".

0000

Polizia konturatu zen margolanak saldu nahi zituztela.

Larunbatean poliziak Arriaga antzokira joan ziren eta dena prestatu zuten lapurrak harrapatzeko. Gaueko hamabietan ez zen inor ageri, itxaron eta itxaroten egon ziren baina ezer ez, ez zen inor agertu. Poliziak azkenean joan egin ziren, eta konturatu ziren tranpa batean jausi zirela.

Lapurrak benetan San Mames Futbol Zelaian geratu ziren. Koadro bakoitzak 100.000.000 € balio zuen eta lapurrek 200.000.000 € irabazi zituzten. Aberats bihurtu ziren baina diru gehiago eta gehiago nahi zuten eta beste plan maltzur bat bururatu zitzairen. Oraingoan Bilboko Arte Ederren Museoan lapurtu nahi zuten. Dena antolatuta eduki ondoren, erabaki zuten hurrengo gauean lapurtzera joango zirela.

Poliziek pentsatu zuten berriro lapurtuko zutela, eta Bilboko museo guztietara polizia batzuk joan ziren zaintza lanak egitera.

Hurrengo gauean lapurrak Bilboko Arte Ederren Museora joan ziren eta oraingoan alarma amatatzea ahaztu egin zitzairen eta polizia ohartu eta museo oso-tik bueltaka hasi ziren lapurrak harrapatzeko. Azkenean biak harrapatu zituzten eta kartzelara eraman zituzten.

Poliziak margolanak erosi zituen pertsonaren bila zebiltzan baina ez zuten inoiz aurkitu eta koadroak ere ez.

—Gustatu al zaizu ipuina?

—Bai! Baina zer zegoen marraztuta margolanetan aitona?



—Koadro batean Guggenheim Museoa eta bestean Zubi-zuri zubia.

—Aitona, ez dira zuk etxean dituzun bi koadro horiek bezalakoak?

5 cent

*Jone Gardezabal Aramendia,
Miguel de Unamuno BHI.*

Fabrikatik atera nindutenean oso pozik nengoen, nire beste hiru lagunak bezala. Hirurak batera 15 zentimo ginen, eta mundua jateko gogoarekin gindoazen. Denetan berdinak ginen, itxuran eta izenean: Laura. Pentsatzen genuen poza eramango geniola ume guztiei, edo agian gutakoren batek neska bati lagunduko ziola bere ametsetako soinekoa erosten, edo sariduna den loteria txartela erosten. Amets asko genituen eta kamioian egindako bide luzean hartaz hitz egiten genuen oso pozik. Kamioia gelditu zen arte. Poltsatxo batzuetan sartuta geunden eta kolpe batzuk eman ondoren poltsa ireki eta kaxoi batean sartu gintuzten. Batzuetan kaxoia irekitzen zen eta txanpon batzuk ateratzen edo sartzen zituzten. Sartzen zituzten txanpon guztiak zikinak eta triste zeuden. Nire etorkizuna horrelakoa izango zela pentsatzeak asko ikaratu ninduen.



Momentu batean konturatu nintzen nire lagunak ez zeudela nirekin. Izugarrizko beldurra sentitu nuen munduari aurre egiteko bakarrik nengoela pentsatu nuenean. Kaxoia irekitzean handik atera behar nuela erabaki nuen, eta besteen artean lekua egin nuen.

Izugarrizko eskua nigana zetorren, hartzean beste esku txikiago batean utzi ninduen. Konturatu nintzen zazpi urteko neska bat zela. Oso pozik sentitu nintzen pentsatzean ume horri izugarrizko poza emango niola, baina begiratu gabe poltsikoan sartu ninduen. Bertan egon nintzen ez dakit zenbat denbora...

Bat-batean lurrera jausi eta aldagela batean nengoela konturatu nintzen. Hamahiru neska edo korrika ari ziren leku batetik bestera. Momentu zehatz batean denak desagertu ziren, eta bakarrik gelditu nintzen. Lurrean botata nengoen nire bizitzaz pentsatzen. Orduan neska bat atetik sartu eta korrika motxila batetara joan zen. Nire albotik pasatzean pixka bat mugitu ninduen eta zirrikitu batetik jausi nintzen. Ur zikinetara erori nintzen eta negarrez korronteak eraman nintzala utzi nuen. Azkenean gelditzea pentsatu nuen, eta bazter batera joan nintzen pentsatzera. Horrela nengoela zarata batzuk entzun nituen. Buelta eman nuenean beste txanpon bat ikusi nuen, bost zentimokoa, ni bezalakoa. Harengana hurbiltzen hasi nintzen, eta nire lagun zaharra zela konturatu nintzen! Deitu egin nion. Hasieran oso baxu, baina ez zuenez ezer egiten oihuka hasi nintzen. Azkenean buelta erdia eman zuen eta konturatu nintzen ez zela bera. Oso triste ikusi nuenez bere alboan eseri nintzen eta nire istorioa kontatzen hasi nintzaion.

Amaitu nuenean bera berearekin hasi zen. Nirea bezala hasten zen: amets izugarriekin; baina nire ustez askoz txarrago amaitzen zen momentu batean esperantza izan zuelako. Kontatuko dizuet:

Ritak, horrela deitzen zen, institutu batean amaitu zuen kaxoi madarikatu hartatik ateratzean. Bertan lagun bat egin zuela pentsatu zuen. Beti zeraman poltsikoan, eta bertatik ateratzean berriro sartzen zuen. Egun batean segapotoarekin poltsikoan sartuta zegoen. Dei egin zioten, eta mugikorra ateratzean neska eta bere lagunak saltokoa eta oihuka hasi ziren, salto haiekin ia lurrera jauzi zen. Hitz egiten amaitu zutenean zerbait esan zien bere lagunei eta berriro hasi ziren saltoka eta jauzi egin zen. Gazteak soinua entzutean beherantz begiratu zuen, baina ez zen makurtu bera hartzeko. Orduak eman zituen lurrean botata, mutil bat korrika pasatu zen arte. Pixka bat mugitu zuen, eta zirrikitutik bota zuen.

Amaitu zuenean konturatu nintzen nire alboan bi zentimoko txanpon txiki bat zegoela, entzuten. Begiratzen nengoela Maialen deitzen zela esan zigun, eta bere istorioa kontatu zigun. Oso antzekoak ziren hirurak. Ez genuen kanpora irten eta berriro berdina gertatzea nahi, horregatik isurbideetatik ibili ginen. Ordu batzuetara lo egiteko gelditu ginen. Esnatzean berriro abiatu ginen. Horrela egon ginen egunak eta egunak. Batzuetan txanponak aurkitzen genituen eta gurekin abiatzen ziren. Denak bost zentimo baino gutxiagokoak ziren.

Egun batean Maialeni denak kontatzea bururatu zitzaion. Bost zentimoko lau; bi zentimoko sei; eta zentimo bateko hemezortzi. Guzti berrogeita hamar zentimo. Beste txanpon batzuk gure taldera batu ziren. Eta azkenean euro bat sortu genuen. Geroago bi, hiru, lau, bost, sei... Hainbeste ginezez kontatzeari utzi genion. Zirrikituko Altxorra deitzen ginen. Azkenean hainbes-



te ginenez leku batean finkatu ginen, eta hiri polit hau sortu genuen: Zirrikutuko Altxorra.

—Laura, orain hiriko guztiak kontatzen baditugu, zenbat euro izango gara?

—Ez dakit, baina norbaitek aurkitzen bagaitu makurtuko da, seguru.

Altxatu eta nire lagun zaharrek elkartu nintzen, Rita eta Maialenekin.

EIDERREN OINETAKOAK

*Itziar Iriondo Mazas
Miguel de Unamuno BHI.*

Eider 9 urteko neska da eta Bilbon bizi da bere gurasoekin. Ile marroia du eta begiak ere ilunak ditu. Alaba bakarra da. Bere amak Jasone du izena eta bere aitak Mikel. Jasonek, Eiderren amak, egunkari enpresa batean lan egiten du eta bere aita medikua da.

Eiderren zaletasuna saskibaloia da, baina ez du inoiz saskibaloia talde batean jokatu, bakarrik bere lagunekin, baina aurten bere eskolako talde batean jokatzearabaki du.



Aurrekoan saskibaloiko arropak erostera joan zen: oinetakoak, kamiseta eta prakak. Kurtsoa hasi berri da eta dena prest eduki behar du. Ia dena aurkitu zuten, dena oinetakoak izan ezik, baina amak agindu zion oinetakoak berak erosiko zituela.

Partiduak eta entrenamenduak hasiak ziren jada, baina amak ez zituen oinetako egokiak aurkitu; horregatik, gimnasiako betiko zapatak erabiltzen zituen jokatzeko.

Eider, normala denez, ez zen oso ona saskibaloian; normala, bere lehenengo astea zen eta. Partiduen ostean, negarrez hasten zen txarra zela esanez, eta bere ama beti zegoen lasaitu nahian, baina alferrik. Berak pentsatzen zuen bere ekipo-ko txarrena bera zela baina, egia esan, denak txarrak baino txarragoak ziren. Ama plan bat pentsatzen hasi zen alaba hain gaizki ez ikusteko.

Hurrengo egunean, larunbatean, amak Eiderri sorpresa bat eman zion:

—Txan, txan, txan! Begira ze zapata pareak erosi dizudan. Inoiz ikusi dituzun zapatarik onenak, politenak eta... gainera, dendakoak azaldu dit oinetako hauekin azkarrago korritzen dela eta salto altuagoak ematen direla. Horrela, ikusiko duzu ze ondo jolastuko duzun, eta zure taldeko hoberena izango zara. Ziur nago —esan zion amak.

—Eskerrik asko, ama! —esan zion Eiderrek— Hau da behar dudana!

Eta ama besarkatu egin zuen.

Hurrengo partidua iritsi zen. Eider nerbioak galduta zegoen. Partiduak astunak, aspergarriak eta desatseginak iruditzen zitzaizkion, dena txarto jolasteagatik.

Partidua hasi zenean, Eiderrek dardarka segitzen zuen, eta zelaira atera zen. Ama harmailetan eseri zen eta, egia esan, bera ere nerbioak hartuta zegoen. Jokaldi batean Eiderrek errebote bat hartu zuen beste taldeko zelaitik eta baloia botatzen hasi zen. Beste kanastara hurbildu ahala, gero eta urduriago jartzen hasi zen eta denbora soberan zuen baloia kanastan sartzeko baina, bat batean, denbora gelditzen zela iruditu zitzaion. Eta pentsatu zuen: "Hau da nire aukera. Zapata bereziak ditut, gehiago korri dezaket eta kanastara heltzean jauzi handi bat egingo dut eta ezin izango naute gelditu". Berrero, "play" botoiari eman eta denborak aurrera jarraitu zuen. Eiderrek horrela egin zuen. Korrika-korrika eta baloia ondo botatzen aurreratu zen eta bat batean jauzi handia egin eta kanasta sartu zuen. Harmailetakoko jendea, bere ama, bere lagunak, entrenatzailea, arbitroa, denak ahoa zabalik geratu ziren. Bi edo hiru segundotan isiltasuna nabarmen egin zen saskibaloia zelai hartan, baina nola ez, denak altxatu eta gogo bikainez txalotu zuten Eider.

Partiduak pasatu eta pasatu egin ziren, eta ikasturtea amaitzen ari zen. Eider bere taldeko onena bihurtu zen, oinetako horiei esker. Lau partidua soilik geratzen ziren liga amaitzeko, baina ezbehar bat gertatu zen partidua batean jolasten ari zela; erori eta zapata bat apurtu zitzaion. Eider urduri baino urduriago jarri zen. Nola irabaziko zuen oinetakorik gabe? Eta partidua bukatzean, etxera itzuli ziren.

Ama orduan bere momentua ailegatu zela konturatu zen:

—Eider, maitea, zatoz sukaldera momentu batean, zurekin hitz egin behar dut eta —esan zion amak.

—Banoa, ama! —eta Eider sukaldean sartu zen.

—Eseri hemen, Eider. Gauza bat kontatu behar dizudala uste dut. Jada nagusia zara eta jakin behar duzu oinetakoak ez direla bereziak, zu baizik. Oinetako horiek ez dute egiten zuk gehiago korritzea, ezta jauzi handiagoak egitea ere —eta Eiderrek esaldia oztopatu zuen amaitzen utzi gabe.

—Zer? —eta harridura aurpegiarekin, amari entzuten jarraitu zuen.

—Entzun, Eider, esaten ari nintzen bezala, oinetakoak ez dira bereziak eta onena da konfiantza pixka horrekin, zure taldeko onena izatea lortu duzula eta zeu zarela zure lagunei esperantza ematen diezuna. Nahi dudana da bihar partiduan erosi berri dizkizudan oinetakoekin jolastea, besteak zaharrak eta apurtuta dituzulako.

Eider burumakur joan zen bere logelara. Ama berriz sukaldean geratu zen. Nahiago zuen Eider bere logelan geratzea gertatutakoaz pentsatzeko.

Partidua ailegatu zen. Eider urduri zegoen. Besteak ziren ligako saskibaloiko jokalaririk onenak, baina bere buruarengan konfiantza osoa zeukan. Partidua hasi zen. Eiderrek errebote bat hartu zuen. Jokaldia hasteko garaia zen. Eiderrek baloia bota, Arantxari pasatu, Arantxak Joneri eta Jonek berriz ere Eiderri, Eider jada kanastaren aurrean zegoen, pasearen ondoren egin behar zuen bakarra jauzi egitea zen, baina berriz ere, zapatak estreinatu zituen partiduen sentazio bera nabaritu zuen, denbora berriz ere gelditu egin zela, "stop" botoiari eman ziola, eta pentsatu zuen. "Oinetakoak ez baziren bereziak, nik bakarrik egin dezaket hau dena. Neure eskuetan dago. 22-23 goaz, kanasta sartzen badut irabazi egingo dugu" eta "play" botoiari eman baino lehen partiduan zegoen berriz. Kanastara baloia bota eta ... Bai!!! Sartu egin zen!!! Denak altxatu egin ziren eta txaloka hasi ziren berriz ere.

Honekin, Eiderrek ikasi zuen konfiantza apur batekin, hobeto jolas zezakeela oinetako berezirik gabe.

Partidua amaitu eta Eider korrika joan zen amarengana besarkatzera, eta eskerrak eman zizkion.



MIKEL IZENEKO EZKUTUKO AGENTEA

Unai Bilbao Aja
Miguel de Unamuno BHI

Bazen behin hamalau urteko hamster bat Mikel deitzen zena. Berak uste zuen aita zaharra zelako hil zela baina egun batean amari galdetu zion non hil zen. Amak uste zuenez Mikel handia zela, egia kontatu zion eta berak uste zuen guztia ahazteko eskatu zion Mikeli. Amak aita ezkutuko agentea zela eta misio oso arriskutsu batean hil zutela esan zion. Ondoren, Mikelek amari negarrez galdetu zion zergatik ez zion lehenago esan eta ezkutuko agentea izan nahi zuela aitaren heriotza mendekatzeko, baina amak ezetz esan zion.

Egun batzuk pasatu eta gero, Mikel aitaren buruzagiarekin hitz egitera joan zen eta ezkutuko agentea izan nahi zuela esan zion aitaren heriotza mendekatzeko. Buruzagiak baietz esan zion beste agente sekretu bat behar zuelako. Geroxeago, Mikeli bere lehenengo misioari buruzko informazio guztia eman zion.

Hurrengo eguneko goizean, bueltatu egin zen eta oso erraza izan zela esan zion buruzagiari.

Orduan, buruzagiak esan zion normala zela oso erraza iruditzea bere aita historian eduki zuten ezkutuko agenterik onena izan zelako. Beste alde batetik, proba bat bakarrik izan zela esan zion.

Bizpahiru egun pasatu eta gero, benetako misio batera bidali zuten Mikel aparatu berezi batzuen laguntzarekin. Hurrengo egunean, itzuli eta buruzagiari esan zion aparatu bereziak ez zituela erabili zeregina erraza izan zelako.



Aste batzuk pasatu zirenean, buruzagiak Mikeli esan zion oso harro zegoela eta orain bere aita baino ezkutuko agente hobeia zela. Mikelek buruzagiari esan zion aspertuta zegoela bakarrik misio errazak egiten zituelako eta ezkutuko agentea egin zela bere aitaren heriotza mendekatzeko eta ez beste misio erraz batzuk egiteko.

Ordu batzuk pasatu ondoren, buruzagiak Mikeli esan zion bere aitaren heriotza mendekatzeko unea iritsi zela, baina ahots batek ezetz esan zuen eta guztiek atzera begiratu zuten. Orduan Mikelek ama ikusi zuen eta galdetu zion zergatik ez zion joaten uzten. Amak Mikeli erantzun zion ez ziola uzten joaten maite zuen beste pertsona bat galtzeko beldur zelako.

Mikel haserre zegoenez bere buruzagiaren mahaian zeuden aparatu berezi guztiak hartu eta korrika joan zen amak ez harrapatzeko eta aita hil zuen pertsona atxilotzeko, baina atean bi bizkartzain zeudenez amak Mikel harrapatzeko agindu zien, eta bizkartzainek ez zioten Mikeli joaten utzi. Ama Mikelen ondora joan zen eta eskutik oso gogor hartuta buruzagiaren ondora eramane zuen. Gero amak Mike-li esan zion hartu zituen aparatu berezi guztiak lehen zeuden lekuan uzteko. Mikelek aparatu berezi guztiak utzi eta gero haserre joan zen amarekin etxera.

Etxera iritsi zirenean, amak gogor hitz egin zion Mikeli eta honek galdetu egin zion nola jakin zuen ezkutuko agentea zela. Amak erantzun zion beste ezkutuko agente bat bere laguna zela eta berak esan ziola. Ama oso kezkatuta zegoenez Mikeli galdetu zion zergatik egin zen agente berak ezetz esan bazion. Amak hitz egin eta gero, Mikelek negarrez aitaren heriotza mendekatzeko zela erantzun zion eta ezin zuela aita hil zuen pertsona ahaztu. Amak Mikeli esan zion gero damutuko zela, baina orain ezkutuko agentea egiteko baimena zuela, bakarrik aitaren

heriotza mendekatzeko. Mikelek besarkada handi bat eman zion amari eta atea zabaltzen zuen bitartean eskerrak eman zizkion.

Atean buruzagia zegoen eta berarekin topo egin zuen. Barkamena eskatu ondoren buruzagiak Mikeli bere auto polit eta handira sartzeko baimena eman zion. Bidean bere misiorik arriskutsuenari buruzko informazioa eman zion. Mikelek bere kezkak azaldu eta buruzagiak erantzun zizkion. Mikel lasaitu egin zen. Ondoren, buruzagiak aparatu berezi batzuk eman eta gero azaldu zizkion berak jakiteko zertarako balio zuten. Buruzagiak ailegatu zirela eta joan behar zela esan zion. Mikel autotik atera eta pertsona batekin joan zen lantegira.


Han lantegiaren nagusia aurkeztu egin zen eta bere marrazo zuria ikustera eraman zuen Mikel. Gaua iritsi zenez nagusiaren emazteak Mikel bere logelara eraman zuen. Mikel ohean eseri zen eta bere lehenengo aparatua erabili zuen. Kamera ezkutuak non dauden jakiteko balio zuen. Mikelek kamera bat aurkitu zuenez puskatu egin zuen.

Hurrengo egunean, nagusiak bere makina hilgarri berria erakutsi zion eta Mikelek galdetu zion ea proba bat egin zezakeen. Nagusiak krokodilo bat ipini zuen proba egiteko. Momentu bat pasa eta gero, krokodiloa zerrauts bihurtu zen makinaren eraginagatik.

Arratsaldean, Mikelek entzun zuen nagusiak emazteari esan ziola Mikel hilko zutela, bere aita hil zuten bezala. Orduan, Mikelek makina hilgarria hartu eta korrika joan zen, baina harrapatu egin zuten eta marrazoari bota zioten jateko. Nagusia joan zen eta emazteari esan zion geratzeko. Mikelek bere bigarren aparatua erabili zuen, hogeita hamar metroren inguruan edozein lekutara telegarraiatzeko erabiltzen zena. Kasu honetan emakumearen atzean ipini zen eta bultzatu egin zuen marrazoak jateko.

Ondoren, ezkutuko agente guztiak etorri ziren pertsona guztiak atxilotzeko, Mikelek deitu zituelako. Nagusia joan egin zen eta Mikel bere atzetik joan zen harrapatu arte. Mikelek nagusia atxilotu zuen eta pozik geratu zen aitaren heriotza mendekatu zuelako.

Ettxera bueltatu zen eta pozik bizi izan ziren Mikel eta bere ama.



Oihane Duran Arbaiza
Gabriel Aresti BHI.

Eguneroko maitea:

Pasa den astean gauza bitxi bat gertatu zitzaidan, zentzurik gabeko gauza bitxi-bitxia. Egia esan, ez dakit nondik hasi, hau oso zaila da norbaiti kontatzeko eta. Nik ez dut ulertzen, hori pasa zitzaidanetik aurrera ez dut izan ez bisitarik, ez gutunik, ez ezer... Hastera noa.

Arratsalde euritsua zen. Ni nekatuta nengoen, oso egun gogorra izan nuen, goiz osoa lanean aritu nintzen eta. Nire butakan eseri eta liburu bat irakurtzen hasi nintzen. Bat-batean telefonoak eta txirrinak aldi berean jo zuten. Ez nekien zer egin: erantzun, ez erantzun; atea ireki, ez ireki... geldirik geratu nintzen. Txirrinak eta telefonoak momentu berean jotzeari utzi zioten. Irakurtzen jarraitu nuen. Euria-
ren soinua entzuten zen berriz.

Handik gutxira, berriro ekin zioten jotzeari. Ateko zirrikitura hurbildu eta gizon garai bat ikusi nuen. Gizonak kapela zeraman buruan; eskuineko eskuarekin harturik, belarriaren parean, sakelako telefonoa zeukan; beste eskuarekin, bitartean, txirrina jotzen zuen.



Poliki-poliki, telefonora hurreratu nintzen. Erantzun nuen eta gizona ahots batek ihardetsi zidan.

—Bai? Nor da? [...] Bai, bai, ni naiz [...] ... eemmm... OK... baina...

Beranduegi, telefonoa eskegi zuen!

Nitaz galdetu zuen. Mitxoleta loredendan geratuko ginela esan zidan hurrengo eguneko seietan. Hau emozioa!

Berriz begiratu nuen atetik. Ez zegoen inor kanpoan, nire imajinazioa izango ote zen? Ohera joatea erabaki nuen.

Hurrengo goizean urduri nengoen, ez nekien ezer gizon horri buruz...

Ohetik altxatu, gosalduta eta lanera joan nintzen. Arratsaldean, normalean baino lehenago atera nintzen bulegotik. Bost eta erdiak ziren. Neure buruari galderak eta galderak egin nizkion:

“Zergatik niri?, Nor zen gizon hori?, Zer nahi zuen nitaz?, Zertarako deitu zidan? ... ”.

Konturatu nintzenerako seiak laurden gutxiago ziren.

Ni seigarren pisuan nengoen. Igogailuari deitu nion baina, asko tardatzen zue-
nez, eskaileretatik jaistea erabaki nuen. Handik arineketan jaitsi nintzen.

Kalera irten nintzenean loredendara zihoan bidea hartu eta ahalik eta azkarren egin nuen korrika.

Erlojua begiratu nuen, seiak bost gutxiago ziren. Ez nuela denborarik izango pentsatu nuen...

Gertu nengoen, bakarrik errepidea gurutzatu eta eskumatara biratu behar nuen.



Ailegatu nintzenean erlojua begiratu nuen. 6:01pm-ak ziren...

“Bah! Minutu batengatik...” pentsatu nuen.

Baina han ez zegoen inor, bakarrik arrosa polit-polit bat ohartxo bati itsatsirik.

Oharra askatu nuen, usaindu eta perfume goxo-goxoa zeukan.

Papertxoa zabaldu nuen. Han gauza bakarra zegoen idatzita:



Beranduegi

D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



Mugarik gabeko irudimena

Maitane Sobrino Alonso,
Artxandape Ikastola HLBHIP.

Nahiko altua, ile marroiduna eta begi argiko irakasle gaztea naiz, Leire dut izena eta oroitzapenetan murgiltzen naizen bakoitzean, nahigabe eta bata bestearen atzetik negar tantak irteten zaizkit. Zer nolako aurkezpen makala egin dudan konturatu naizenerako paperean idatzita ikusi dut deskripzio hau eta horrela uztea erabaki dut; izan ere, batzuetan ez da komeni zerbait esan baino lehen pentsatzea, pentsatzen duzuna esatea baizik. Gauza da, gaur, denek noizbait egingo zenuketen bezala, txikia nintzeneko argazki albumak ikusten nagoela, nire familiako kideak etxera bazkaltzera etorri direlako eta ohi den bezala, postrearekin batera, argazkiren bat erakusteko beharra aurkitu du nire amak.

Egia esan, argazkiak benetan atsegin ditut, momentu bat betirako gordetze-ko gaitasuna daukaten paper zati bakoitzaren atzean istorio luze bat egon ohi delako. Beharbada lotsa, tristura, nostalgia edota barregura ekarriko dizkizuite baina ados nago irudi batek mila hitz baino gehiago balio duela dioen esaera zaharrarekin. Albumeko argazki batean neure burua ikusi dut, liburu txiki bati eusten eta bat-batean hainbat oroitzapen ekarri ditut gogora. Beraz, nire ikasleentzako ipuintxo bat idaztea etorri zait burura, 9 urteko irakurle bihurri haientzat zehazki. Eta opor-rak hurbil daudenez, uste dut ipuintxoa irakurtzea izango dela haien etxerako lana.

Eta konturatu naizenerako, izeko Terek musu bat eman dit badoazela esanez, denak agurtu ditut eta nire logelara joan naiz.

Boli bat eta papera hartuta, idazten hasi naiz:

“Bazen behin Leire izeneko neska bat, 9 urte zituen eta beti zebilen zoriontsu, triste egoteko arrazoirik ez zuela uste baitzuen. Leire eskolara joaten zen eta musika ikasten zuen. Nagusitan pianojole famatua izatea zen bere ametsa. Bere aita eta amarekin bizi zen eta ahizpa nagusi bat zeukan, Alazne izenekoa. Klaseko lehenengo egunean, irakasleak kurtso osoan zehar egingo zuten lana azaldu zien: bidaia liburu bat egin behar zuten, hilero aurretik bisitatu zuten leku bat deskribatuz eta hainbat argazki ipiniz. Guztira 10 lekuren deskribapenak egin behar zituzten urte osoan zehar. Eta Leire etxera joan zen, irailean deskribatuko zuen lekua pentsatu behar zuelako. Baina arratsalde osoa pentsatzen egon zen arren, oso leku interesgarri gutxi bisitatu zituela konturatu zen eta negarrez oheratu zen, deskribapen lana txarto egingo zuela pentsatuz. Baina hurrengo goizean ideia bikaina bururatu zitzaion, bisitatu ez zituen 10 lekuren deskripzioak egingo zituen. Nahiz eta leku horiek ez ezagutu, uste zuelako argazkiei erreparatuz eta bere irudimena martxan jarritz primerako lana lortuko zuela. Irailerako aitari eskatu zion Italiako hainbat argazki ekartzea. Esan eta egin, aita bizpahiru argazki ekarri zizkion eta Leirek bere lehenengo deskribapena burutu zuen eta espero zuena baino askoz ere hobeto geratu zitzaion. Eta horrela, hilero leku bat deskribatzen hasi zen, bere idazlanetan hainbat gauza aipatzen zituen, esaterako: nolakoa zen lekua, zer-nolako biztanleak bizi ziren bertan, nola janzten ziren eta hainbat ezaugarri gehiago. Azkenean, konturatu zenerako, ekaina heldu eta horrekin batera, irakasleari bere deskribapenen bilduma emateko unea heldu zitzaion. Hurrengo asterako, irakasleak lan guztiak zuzendu zituen eta Leireri esan zion bere lana ezin hobea zela, oso harro zegoela berak egin zuen lanaz eta hori guztia kontuan harturik, bere deskribapenekin liburuxka bat egin zuen, txikia eta xumea, baina Leireren ustez, miresgarria. Eta hain ziren onak eta errealak deskripzioak, non irakaslea ez baitzen konturatu Leirek ez zuela deskribaturiko leku bat ere bisitatu. Baina hori zuek gorde behar duzuen sekretutxo da. Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila, liburuen plazan.”

Hurrengo egunean, nire ikasleei ipuina banatu eta azaldu diet oporretako lana ipuina irakurtzea, zer iruditu zaien idaztea eta ipuinaren protagonista nola imajinatu duten kontatzea dela. Izan ere, hurrek ez dakitena da ipuinaren protagonista ni naizela.

Oporrak heldu dira eta umeak pozez txoraturik daude. Joan baino lehen etxerako lanak egitea oso garrantzitsua dela gogoratu diet eta, kexaren bat entzun eta gero, denak joan dira oporrez gozatzeko asmoarekin.

Beti esan ohi denez, ondo pasatzen dugunean denbora azkar igarotzen da eta berriro ere klasera bueltatzeko ordua heldu zait. Eta ilusioz nator, gogo bizia baitaukat umeek nola imajinatu nauten jakiteko. Beraz, lan guztiak batu ditut eta jolas-torduan irakurtzen hasi naiz. Naiak, klaseko ikasle pinpirinak, dio Leire argala eta ilehoria dela, begi urdinak dituela eta printzesa bat dirudiela. Markelek, berriz, saskibaloiz jarraitzaile sutsuak, imajinatu du ipuineko neskatxa kirolzalea eta altua dela

eta Bilbao Basket taldean jolastearekin amesten duela. Nereak, beti abesten dagoenak, Leirek gitarra eta biolina jotzen dituela eta koru batean abesten duela uste du. Azkenik, Ikerrek, primerako margolaria, Leirek bere deskribapen guztietan irudi ederrak margotu dituela eta kurtsoan zehar lanarekin batera koadroak egin dituela uste dut. Ez dit gehiago irakurtzeko denborarik eman baina, hala ere, aitortu behar dut barre asko egin dudala haien lanekin, inork ez duelako asmatu ni naitzela ipuineko neskaxa. Bakoitzak Leire deskribatu du berari gustatuko litzaiokeen bezala eta, egia esan, oso deskribapen politak irakurri ditut.

Nahiz eta egun hauetan konpromiso asko izan, lan hauei arreta berezia eskaini diet, eta ziur nago denoi nota bikainak jarriko dizkiedala. Baina, badago idazlan bat guztiez ezberdintzen dena, ez bakarrik bere letra argi eta txukunagatik, bere mezuagatik alegia. Uste dut, ikasle honek benetan ulertu duela ipuinaren bidez helarazi nahi nien mezua eta hemen daukazue ipuinari buruz ikasle horrek eman didan iritzia:

“Uste dut, Leirek benetan ulertu duela irudimenarekin oso urrun hel zaitezkeela, oso arma boteretsua baita, edozein muga gaindi dezakeena, ez baitu eremuz, herrialdez ez jabetzaz ezagutzen. Irudimena bakoitzak lan dezake, bere modura, inoren eredua jarraitzeko beharrik gabe, bere iritziarekin eta horrela gizakiak inoiz zapaldu ez dituen lurretara heldu zaitezke. Eta zein baliabide egon daiteke literatura baino hobe, bakoitzak bere irudimena garatzen uzteko?”

Eta hitz hauekin batera, negar malkoek nire begietatik ihes egin dute, oso harro bainago hitz hauetaz, eta batez ere, historian lehen aldiz, hitz soil batzuek milaka irudik baino gehiago balio dutelako.

Egia bada, sinetsi; eta egia ez bada, amestu.





Elai Andra González,
Ignacio Ellacuria BHI.

—**B**enetan, ikusi izan bazenu seguruenik gustuko izango zenukeen. Begi berde handiak, oso distiratsuak; azal beltzarana, eguzkiak belztutakoa; ilehoria, orrazkera modernoa, horrek gazte itxura handiagoa ematen zion; ondo garatutako muskuluak, baina nazkagarria izatera heldu gabe... Beno, badakizu, dendetako maniki bat zirudien. Ez, maniki bat ez, aingerua hobeto esanda.

—*Bai, hobeto: Manikiek ez dute negarrik egiten.*

—Negarrez ikusi beharko zenuen! Edonork esango zuen munduan dagoen gaizkiagatik penatuta dagoen aingerutxo gaixoa zela —isilik gelditu zen momentu batez, bere edalontzian zeuden brandyz bustitako izotz zatiak begiratzuz—. Heldu ginenean bere emaztearen gorpu biluzia zeukan besoen artean. Marilyn bat zirudien. Aingerutxo Marilyn besarkatzen. Aingerutxoren begi berdeak malkoz gainezka zeuden, inoiz baino distiratsuago, inoiz baino ederrago... Gertatutakoa kontatu zigun. Ogia eta egunkaria eroatera joan zen eta hogeita hamar minutu egon zen etxetik kanpo, kalean lagun bat topatu eta berbetan egon zirelako. Bueltatu zenean bere emaztea sofan ikusi zuen, arroparik gabe. Hasieran martxa pixka bat nahi zuela pentsatu zuen, baina hurbiltzerakoan konturatu zen egia bestelakoa zela.

—Ordu erditan bakarrik? Zelatariren bat al zuten etxe aurrean, ala?

—Ez, itxoin; utz iezadazu dena kontatzen, emakume! —bere emazteak barre txiki batekin erantzun zion- Esan zigun momentu horretan etxean zegoen pertsona bakarra Braulio zela, lorazaina. Inoiz ikusi dudan gizonik itsusiena da. Benetan itsusia. Bekoki oso-oso txikia, bi tontor handitan bukatuta; zizare lodi eta beltz bakarra bekain moduan. Begi txikiak, bata bestearengandik oso hurbil; sudur handia, patata itxurakoa. Nahiko txikia eta potoloa; beso luzeegiak... Australopithecus bat, egia esan. Seguruenik Luziferrek hartuko lukeen itxura infernutik igoko balitz. Luzifer, aingerutxoren Marilyn-en hilketaren susmagarri bakarra.

—Nahiko argi nork egin zuen, ezta?

—Bai, horixe bera uste genuen geuk ere. Baina ez zen hala izan. —Emazteak harridura aurpegia jarri zuen, eta berak, polizia buruak, kontaktarekin jarraitu zuen— Luziferri galdeketa egitera joan gintzaizkionean loreei kantatzen topatu genuen. Kantan! Ze hiltzaile motak abesten die loreei zaintzen dituen bitartean? Ahots zakarra zuen, eta ez zuen oso ondo ahoskatzen. Seguruenik, sufrea hain pilatuta dauka eztarrian ezen ezin baitu ondo hitz egin jada. Beno, galdetu genionean oso kezkatuta jarri zen bat-batean. Gertatutakoa kontatzean negar egiten hasi zen. Esan zigun andereak ez zuela horrelakorik merezi, erruduna aurkitu behar genuela, bere merezia emateko. Esan ere esan zuen emakumeak nahiko zuela bere senarraren tratatu txarrak jasanez.

—Bere senarrarenak? Aingerutxoarenak?

—Bai, horixe bera. Geuk ere ez genuen sinetsi egin hasieran eta galdeketa amaitzen genuen bitartean, gure taldeko bi gizon bidali genituen alargunaren bila. Zelako hanka-sartzea! Lorazainak aingerutxoa ikusi zuenean haren kontra joaten saiatu zen baina, zorionez, nire gizonak harrapatu eta heldu egin zuten. Hala ere, horrek ez zuen saihestu oihuka hastea: “Zer egin diozu andeari?! Deabru hutsa zara! Berak ez zuen horrelakorik merezi! Ez dakizu nolako zortea izan zenuen bera aurkitzean eta pikutara bidali duzu dena!” “Nola ausartzen zara niri horrelakoak esaten? Ez dakizu zein txarto nagoen momentu honetan... Nire emaztea galdu berri dut nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuena, seguruenik zuk hilda, eta niri oihuka hasten zara, lotsagabe halakoa!” Aingerutxo ikusi behar zenuen momentu horretan, atsekabearen irudi bizia zen, hiletetarako postalak egiteko modukoa. Eta Luzifer, tximino handia, guztiz erotuta, aingerutxo hil nahian.

—Baina, azkenean, nork zuen arrazoia?

—Ezin jakin komisariara itzuli arte, han polizia zientifikoak bildutako frogak baitzeuden. Ibilgailu desberdinean eraman genituen haraino eta horrek lasaitzeko denbora eman zien. Galdeketa gela ezberdinetan sartu genituen frogak aztertzen genituen bitartean. Ezer ez! Ez aztarnarik, ez arropa zuntzik, ez zikinkeriarik...

Dena garbi-garbi, mamu bat izan balitz bezala. Luzifer benetan zikin zegoen, goitik behera lokatzez beteta. Ezinezkoa zen arrastorik ez uztea. Aingerutxo, berriz, hain garbi zegoen... Garbiegi. Bere emaztea hilda aurkitu berri zuen, berak esan moduan, eta ez zeukan ile bakar bat ere lekutik kanpo, argazki sesio batetik irtendako modelo batek izango zuen itxura bera. Garbiegi, bere emaztea hil egin zuten egongela bezala.

—Nola hil zuten?

—Xiringa batekin aire burbuila bat sartu zioten zainetan. Bihotzera heltzean ez zion taupada emateko adina lekurik utzi. Ia guztiz antzemanezina. Ia. Aingerutxo medikua zen; sendagile batek horrelako gauza bat jakin beharko zuen eta xirringak erraz lor zitzakeen. Lorezainak ez zuen horrelako gauza bat jakiteko modurik.

—Orduan, momentu horretan atxilotu zenuten?

—Ez. Ezin genezakeen. “Indicios circunstanciales” direlakoak. Froga sendoa-goren bat behar genuen. Eta gainera, galdeketak ikusita edonork esango zukeen aingerutxo lorezainaren biktima zela. Azkenean, zortea izan genuen. Sendagileak etxean zuen bulegoko armairu baten atzean ezkutatuta aurkitu genuen xiringa, aingerutxoren hatz-markekin eta Marilyn-en odolaren arrastoekin.

—A ze nolako munstroa! Zergatik egin zuen?

—Bere emaztearen barruan, autopsian ikusi zenez, fetu txiki-txikia zegoen. Ez zuen zeukan askatasuna galdu nahi eta ez zuen dudarik izan “arazoa” paretik kentzeko.

—Benetan, maitea, kontatzen hasi zarenean guztiz kontrakoa espero nuen...

—Bai, geuk hanka-sartze berbera izan genuen. Kanpoko itxuraz gehiegi fidatu ginen, aingerutxoren aktore trikimailu guztiak sinetsi egin genituen. Epaiketan bere benetako aurpegia erakutsi zigun. Ez zegoen batere damututa egindakoagatik, guztia lotsarik gabe aitortu zuen eta zigorra irribarre hotz batekin onartu zuen. Ez zuen abokaturik eskatu, bera zen bere buruaren defentsa.

—Txerri galanta!

—Guztiz okertu nintzen izengoitiek. “Aingerutxo” eta “Luzifer”. Erabat kontrakoak ziren. Lorezaina Marilyn-en lagun bakarra zen, bere senarrak nola tra-



tatzen zuen ikusten zuen bakarra. Ez dut berriz pertsonen itxura kontuan hartuko haiek ezagutu baino lehen... “Aingerutxok” hamar urte dauzka kartzelan, gutxiegi nire ustez.

Bi urte beranduago:

Presondegitik egun horretan atera zen gizona benetan berezia zen. Oso ederra, aingeru itxurakoa. Harekin bi urte pasatu zutenek bazekiten bere barne pozoituan ez zela arimarik kabitzen. Hala ere, preso egon zen tartean jarrera ezin hobea izan zuen eta legez zigorra murriztera behartuta zeuden. Ez zen batere bidezkoa...

Brauliok lorategia zaintzen jarraitu zuen bi urte haietan, nahiz eta etxean inor bizi ez. Uste zuen anderearen arima ederra etxeko lore paregabeetan antzematen zela eta horrek zaintzea merezi zuen. Lorategira heldu zenean Deabrua ikusi zuen leihotik begira, irribarre ezin maltzurragoarekin.

Ez zion ezer esan bere etxeko lursaillean sartu zen gizon itsusiari. Lasaitasunez begiratu zion nola mozteten zuen arrosa bat eta berarekin eramaten zuen berri ez bueltatzeko asmoz.

Laster arte

*Maider Bilbao Alzibar,
Gabriel Aresti BHI.*



Debajo de los tinteros salen ratones, pidiendo a la andereño las vacaciones!”

Gogoratzen duzu abestia, ezta?

Urtero oporren hasieran, hasi eta arratsalde berean, dei bat jasotzen genuen. Zeu zinen abesti harekin; hasi eta nik batzuetan jarraitu egiten zintudan eta beste-etan irribarre batekin itxaroten nuen zuk amaitu arte, eta horrela beti. Ez pentsa ahaztu dudarik, faltan botatzen dut egia esanda. Ordutik oporren hasierak ez dira hain irribarretsak izan.

Norbaitek ikusiko banindu, hemen, zu aurrez aurre zaitudala, baina aireari hitz egiten bezala, zoro moduan.

Ez daukazu hau oso garbi eh! Bai, lasai, garbituko dizut eta lore zahar hauek aldatuko dizkizut.

Badakit denbora luzea pasatu dela azken bisitatik. Bai, baina ez pentsa zutaz ahaztu naizela, eta ikusi dudanez zuk ere ez gaituzu ahaztu, hor daukazu duela 3

urte ekarri genizun ikurrina hura itsatsirik, garbi-garbi eta bere lekuan. Denok daki-gu nolakoa zaren.

Suposatzen dut aspalditik kontatu ez dizkizudanez gauzak, irrikitan egongo zarela gauzak nola doazen jakiteko, agian guztia baldin badakizu ere.

Nondik hasi? Bai, badakit. Badakit lehendabizi nori buruz jakin nahi duzun; beraz, hortik hasiko naiz.

Amama ondo. Faltan botatzen zaitu, pila bat gainera, baina gu guztiok gaude berarekin, entretenituta egon dadin denbora gehienez; gainera, ia astebururo izekoa dator berarekin asteburua igarotzera eta aita egunero doa arratsalde pasa. Izugarritzko elkarriketak dituzte, “Salvame” delako teleaioarekin.

Ondo dagoela esan dizut, eta egia da, baina duela bi aste erori egin zen. Baina lasai, egon askoz hobeto dago. Hala ere apur bat beldurtuta, baina guztiok gaude batera bakarrik egon ez dadin.

Zure biloba txikiena gogoratzen duzula badakit. Atzo arratsaldean bere gabonetako postala heldu zitzaigun. Oso polita. Deitu egin nuen eta amak egiten zuena errepikatzen egon zen elkarriketa osoan zehar. Ez zenuke ezagutuko, ezin da geldirik egon, baina normala da, 5 urte ditu dagoeneko.

Abenduko zubian, adibidez, guztiok batu ginen; jatetxe batera joan ginen urtebetetze guztiak ospatzera, zurea barru noski. Jende gehiegi zegoen bertan baina oso ondo pasatu genuen.

Badakit hau barregarria irudituko zaizula, ziur nago. Duela gutxi aitak —gutxi gutxi ez, bueno urte bete edo gehiago izango da— horrela esan zidan: “Badakizu zer? Erretzeari utziko diot Gabonak heldu baino lehen!”

Bai. Urtebete pasatu da. Pasa den udan izan zen hori. Orain suposatzen dut badakizula nor etorri zitzaidan burura hori esan zidanean.

Familiarekin jarraituz, badakit ez duzula ahaztu, baina duela bi egun ahizparen urtebetetzea izan zen, 18 urte bete zituen. Bere 18 urteak eta, amamak esan zuen bezala, janariz betetako ospakizun bat egin genuen.

Ni zelan nagoen? Ondo, beti bezala. Nondik hasi... ikasketetarik? Dena doa- kit ondo. Gorabeherak izan ditut, eta oraindik baditut ere, ez pentsa; inoiz ez dut lortuko matematikak nire alde jartzea, beti izango dira nire etsaiak.

Ez dakizu zelako gogoia dudan biharko eguna heltzeko, oporrak; bihar gogoratuko dut abestia, noski. Ostegunean kontzertu batera joango naiz, udan egon nintzen lagunekin, baina udako gauzak beste egun batean kontatuko dizkizut, luzerako daukagu eta.

Gogoratzen duzu saskibaloian jolasten nuela, ezta? Ba duela bi urte utzi nuen jadanik; lasai, kirola egiten jarraitzen dut baina nire kontura.

Esan dizut Gabonak jadanik hemen ditugula? Hiru egun besterik ez dira gertatzen Gabon gaua heltzeko. Ez dakizu zelako gogoia dudan, eta Gabon egunean amama eta izekoarekin izugarritzko bazkaria prestatuko dugu.

Eta Gabon zaharrean guztiekin, beti bezala. Egun horretan bai gogoratzen garela zutaz, ni gutxienez, eta badakit ez naizela bakarra. Amama beti jartzen da apur bat triste; ikusten ez bada ere, nik uste dut denok zaitugula buruan 12

mahats-aleak ahoan sartzerakoan, eta terrazan egon ondoren beti jartzen zinen urduri lurrean zeuden gauza guztiekin; dena uzten zenuen garbi-garbi, beti. Aurtan gau ona izango dugula uste dut. Osabak ziur ekartzen duela zerbait gaua animatzeko.

Iluntzen hasi da eta hemen hotz egiten du. Ama datorkit bila baina zin egiten dizut goiz itzuliko naizela istorio berrieekin.

Tximeleta belarriak

*Karmele Ugalde Arcenillas
Berrio-Otxoa HLBHIP.*

Otsailak hiru, ongi gogoratzen dut egun hori. Minbizia neukala esan zidaten. Minbizia. Ezin nuen hitza burutik atera. Nire amona hil zen moduan, nire ama gaixotu zen moduan, horrela gaixotu eta hilko nintzen ni.

Hamalau urte neuzkan eta nire amona hil zenetik eta nire ama gaixotu zenetik, proba batzuk egiten zizkidaten urte birik behin, nik ere gaixotzeko eta hiltzeko arriskua neukalako. Orain lau-bost urte joan nintzen probak egitera eta zerbait arraroa aurkitu zidaten. Zenbait analisi egin ostean, medikuak kontsultara joateko eskatu zidan. Han nengoen ni, ama nire eskuineko aldean jesarrita nuela, alarma faltsu bat izatea espero nuen bitartean. Baina ez. Bularreko minbizia neukan. Nik ezin nuen sinetsi. Nire ama negarrez hasi zen. Nire ama. Ezagututako pertsona miresgarriena eta ausartena negarrez zegoen. Bere ile hasi berriak ez zizkion tximeleta belarriak estaltzen.

Horrelako momentu latza eta nik bakarrik horretan pentsatu ahal nuen. Shock egoera batean, edo antzeko zerbait, sartuta nengoen eta zenbait erizain etorri behar izan ziren niri laguntzera. Esan zidaten lasai egon ahal ginela, laster aurkitu zidatenez, ez zegoela arrisku handirik zelula gorputzetik zabaltzeko. Ez dakit zergatik baina nahiko gutxi lasaitu ninduten hitz haiek.

Ospitalera joan nintzen eta operatu egin ninduten.

Geroago kimioa hartzen hasi nintzen. Lagunak beti egoten ziren han eta nire ama ere bai. Kimioa bukatuta, klaseetara itzuli nintzen. Bizitza normala egiten hasi nintzen berriro: nire ile kizkurra hasten hasi zitzaidan eta amarengandik heredatutako tximeleta belarriak lotsati nire ilearen azpian ezkutatzeko hasi ziren. Tximeletak. Hain panpoxo eta politak. Tximeletak. Zein animalia ederrak... Neuk ere izan nahi nuke bat, libre sentitu, hegoak eduki. Baina momentu hartan hegoak ebaki zizkioten tximeleta bat nintzen ni. Hegorik gabeko tximeleta, berriz jaiotzen dabilen tximeleta, berritzen dagoen tximeleta, denbora pasata libre geratuko den pinpilinpaua.


Urte batzuk geroago, hamazortzi urte bete nituela, beste proba batzuk egin zizkidaten. Beste proba batzuk, beste gauza arraro bat, beste analisi bat... Baina oraingo honetako amaiera nahiko desberdina izango zen. Kimioak ez zidan ziur-



tatzen minbizia erabat desagerraraztea, baina hala ere beste mota bateko bukaera bat espero nuen. Bukaera polita, fantasiaz betea, nire pegasoa orrazten nuen bitartean nire printze urdina nigana aurreratzea eta musu ematea. Infantilak? Berdin zuen, inoiz beteko ez zen ametsa zelako. Orain aipatu dudan etorkizuna oso segurua ez zenez, B plana edo halako zerbait egin nuen: ikasketak bukatzea, lan bat aurkitzea, maitemintzea, bidaiatzea... Baina ez zen horrelakorik egongo, izan ere minbizia gorputz osotik zabaldu zitzaidan eta ezin zuten ezer egin. Nire amets guztiek nire zain guztiak zeharkatzen zituzten tutuetatik egiten zuten ihes. Pena bakarra zen nik ere tutu horretatik alde egin ezin izatea. Ospitalean pasatu nituen hilabeteak, sufri-mendu hartatik ateratzen lagunduko zidan norbaiten esperoan, baina ez zen inor agertu. Batzuetan Jainkoarengan pentsatzen nuen, beste batzuetan ez, edo bestela amarengan, lagunengan, nire amonarengan... Nire amona ez zen inolako tximeleta, baina urrun egin zuen hegan eta ez zen inoiz itzuli.

Nire izate bakarrak sumindu egiten ninduen, eta halakoetan begiak ixten nituen eta ni ere urrun joaten nintzen, baina badirudi poltsikoan bueltatzeko txartela neramala, eta beti hartu behar izaten nuen errealitatera eramango ninduen tren.

Eta halako batean, itzultzeko tiketa erostea ahaztu zitzaidan; eta azkenean, denbora pasata, libre geratu zen pinpilinpaua bihurtu nintzen.



Sara Nicholson Mendieta
Artxandape Ikastola HLBHIP.

Goiz-goizetik esnatu, laztan batez besteak itzartzeko. Begiak goxo-goxo zabaltzen dituzten arte xerak egiten dizkiet, haiei so eginez etengabe. Amak erakutsi zidan bezala maitasuna adierazteko era bakarra maitatzea da. Baina gizaki hauen maitatzeko era ez da nik ezagutzen dudana bezalakoa. Agian ez dute maitatuko, edo agian ez dakite maitatzen. Halere, maitatu behar zaie, aitzak esaten zuen bezala, maitatzen jakiteko maitatuak izan behar gara.

Gizaki hauek egunero ikusi arren, ezin dut neure burua beraienen alboan egoitu. Ez ditut ulertzen, era berean haiek ni ere ez.

Haiek ulertzen ez duten hizkuntzan mintzatzen naiz, zurrungatuz, “sukalde” deitzen omen den lau-horma artean itxaronez, hori baita gose naizen seinale harrapatzen duten mezu bakarra. Nik gosalduta ondoren, haien gosariaren lekuko ere banaiz. Sabela asetutakoan “arropa” delakoa janzten dute. Zertarako trapu horiek nahi? Gorputza ezkutatzeke, agian; besteen artean nahasteko, beharbada.

Joan dira, jada. Etxearen jauna eta jabe egin naiz oraingoan ere; manta gorrixkan atzaparrak behin eta berriro tinkatu ondoren neure buruari parte bat bira eta begiak itxi, ez tita, loak ni musukatzen nauen arte, ez baitago gizakiei itxaroteko modu hoberik.

Etorri dira, jada. Oraingoan ere gutun mordoarekin dator, postontzian sortu omen den “dirua”-rekin, beraientzat hain ezinbestekoa eta erabilgarria den paperzati horrekin. Ikusi dudanez, bizitzeko paper-zatia beharrezkotzat dute, irribarrea margotzen duena eta, paper faltan, negarra sortarazten duena. Beharrezkoa, bai zera! Beharrezkoa ez da papera, zuhaitzak baizik! Gizakiek zuhaitzak mozten dituzte papera lortzeko, baina zertarako? Zertarako zuhaitzak moztu zuhaitzak baldin badira gure bizia baldintzatzen dutenak?

Agian neu naiz ezjakina, baina ulertzen saiatu arren ez dut erantzuna topatzen.

Esan bezala, gizakiak hemen dira. Nire gorputzak hauek agurtzera bultzatzen nau, laztan goxo baten nahia asetzeko beharbada. Haiek dira bizirauteko baldintzak eskaini dizkidatenak, nolabait esanda, jatekoz eta laztanez eraiki nindutenak.

Asko bizi izan dut. Gehiena tximino zutituak aztertzen, inoiz ez ditudala ulertuko susmoa dut. Hots, ikasi dut. Haietaz ikasi, eta inola ere ez nuke haietako bat izan nahi.

Lapurtu didate lo egiteko prestatuta nuen txoko beroa. Nire manta gorrixka hartuta han jarri da bata, bestea ordea “egunkaria”-ren orri handiekin olgetan dagoela dirudi, balatxoak eginez, horiek horman dagoen zulo antzeko batera jaurtiz. Neure burusi gorrixka bereganatu duenarengana abiatzen naiz. Tentel aurpegiarekin leiho koloretsu batera begira dagoela esango nuke. Leihoa arakatzen gelditu naiz neu ere. Momentu batetik bestera, ezin egonez, salto egin dut, <ez al duzu ikusten, gizaki, zu bezalakoa daudela leihotik ezin irtenda? Salba itzazu, arren!> Baina ez ditu nire zurrungak ulertzen. Tentel aurpegiarekin jarraitu eta gose naizela oldozpen egiten du honek.

Ez dut beste irtenbiderik izan, leiho harrigarri eta gizaki tentel horietaz paso egin behar izan dut. Baina, baina, baina... Zer da nire begiek ikusten dutena? Zulo ilunari argia dario! Horrelakorik... Argiari hurbildu natzaio. Kolore gorri-horixken nahastea dela esango nuke, material antzeko bat agian.

“Sua” deitzen dela diote, gizakidun kaxa edo kaxa koloretsuak “telebista” izena duela ere.

Esan bezala, haiengandik ikasten, etengabe.

Handiak direla, lurreko errege, zeruko agintari eta itsasoko bote-redun, hots, inozoak direla ere badakit. Dena eduki dezaketela baina ezer ez dutela; denbora amaigabea dutela baina bertan behera gelditzen direla, bizitzeko gogorik ez balute bezala.

Maitasuna dutela ardatz, baina


ez dakite maitatzen. Maitatzea ez da noizbehinka “maite zaitut” esa-

tea eta

aurpegi goxoa

jartzea; maitasuna ez da zu bezalako “beste bat” kontuan hartzea, beraz, arduratzea. Maitatzeak





bihotza eskatzen du, bihotz irekia. Neure burua maitatzeko zurea maitatu behar dut, eta urrutiagoko batena.

Zoriontasuna paper kopurutan mugatzen dutela ere erakutsi didate. Beti zoriontasunaren zain, horren bila joan beharrean inolako paperik kontuan hartu gabe.

Orain, badakizue zertan datzan nire bizia, gizakiak ezagutzeaz. Horrela, behintzat, nire bizi aspergarriari zentzua ematen saiatzen naiz. Ordea, ez dakizue oraindik nor naizen ni. Hara, “Lur” deituriko katu aspertua nauzue. Bai, katutzat dut neure burua, baita aspertutzat ere. Bakarra naiz, gauzatxo bat izango banintz bezala hartzen naute, ez didate “kanpora” irteten uzten, gustuko ez dudan jatekoa jaten dut, batzuetan jan ere ez, jolasak aspaldi bidean utziak ditut. Lo egiteko soilik naiz askea; era berean, ez dut askatasuna ezagutzen. Jakintasuna dut helburu, baina gizakietara mugatzen da nire jakintza. Ez dut inoiz mundu berdea ezagutuko, ezta urdina ere, baina bizitzak ez dit beste aukerarik eman.

Lur deituriko katu aspertua nauzue, eta zu? Ba al dakizu nor zaren zu?

Aurkibidea

Alkatearen agurra	3
Sariak	4

A Kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- San Mames.....	9
- Prakak eroatera	11
- Neure buruari kontatzen diodan ipuina	13
- Mikelen eta Maialenen ezkontza	15
- Super-poztasun eta herri tristea	18
- Betidanik	20

B Kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

- Egun madarikatua.....	25
- Bi ur tanten bizitza.....	27
- Beti min berdina	29
- Mariren egunerokoa	31
- Sagi banpiroa	34
- Bost mila piezako puzzlea	36
- Deustuko hilketa	39

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

- Norvegiako etxea	45
- Bilboko misterioa	48
- 5 cent.....	50
- Eiderren oinetakoak	53
- Mikel izeneko ezkutuko agentea	56
- Dei ezezaguna	59

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Mugarik gabeko irudimena	65
- Aingerutxoa eta deabrua	68
- Laster arte	72
- Tximeleta belarriak	75
- Nor zara zu?	77



zeurea da hitza
euskara
no te lo pierdas